



**Arzelus Toledo'tar
Ander
"LUZEAR"**

1898-1949

Arzelus Toledo'tar Ander

«LUZEAR»

1898-1949

Jonan Zinkunegi Arzelus

AURKIBIDEA

GAIA

AURKEZPENA "ARZELUS" abizenaren jatorria	
"TOLEDO" ABIZENAREN JATORRIA	
GURASOAK	
IKASKETAK, 1914 arte	
EZKONGAIETAN	
EZKONTZA, 1923	
LEHENENGO IDAZLANAK	
ARGIA	
TXISTU	
EL DÍA	
EGUARRI ABESTIA	
ABERTZALETASUNA ETA EUZKERAZALETASUNA	
EUSKAL IRRATIA 1932	
POXPOLIÑAK	
ANTZERKIA	
ANTZERTI EGUNA	
HITZALDIAK oneraino	
EGUARRI ABESTIA BERRARGITARATUA	
EL LIBRO DE ORO DE LA PATRIA	
EUSKALTZALEAK	
EUSKAL EDESTIA	
BERTSOLARITZA	
EUSKAL IDAZLE BATZARRA ("Aberri"ri omenaldia), 1933	
1º EUSKAL IDAZLE BATZARRA - Elgoibarren, 1933	
2º EUSKAL IDAZLE BATZARRA - Mutrikun, 1935	
POLITIKARIA-EAJ 1930-1949	
ESTATUTUA, 1936	
GUDA GARAIA, DONOSTI-ZARAUZ-LEKEITIO-BILBO, 1936	
GUDA GARAIA BILBON, (Eguna, Radio Bilbao, E.J.Boletina...)	
ESPEXETAN	
DUESO, LARRINAGA, BURGOS 1937-1943	
ABESTIAK	
KILKIR ABESTIA (Eresidun antzerkia)	
EUSKERA IKASTEKO METODOAK (Verbo alemán)	
ESPEXEKO ORFEOIA	
BERTSO BERRIAK KARTZELATIK JARRIAK	
BI LANTXO ERDERAZ	
HIRU FUSILATUEN AZKEN ESKUTITZA	
RAMON DE GALARZAK KONTATUTAKOAK	
ESPEXETIK IRTEERA	
DONOSTIA-MADRIL-DONOSTIA 1943-1944	
DONOSTIAN BERRIRO 1944	
IPARRALDEAN	
EBBko LEHENDAKARIORDEA	
RADIO EUZKADI IRRATIA	
AMALAREN EZKONTZA	
LOURDES 1948-1949	
BERE AZKEN IDAZLANAK	
PARISEN EBAKUNTZA	
AZKEN GARAIA	
LUZEAR OROIMENEAN	
BILBON, SAN ANTON ORFEOIAK OMENALDIA	
EAJ 100 URTE	
EGUARRI ABESTIA EIZEEK	
HIRUTXULOKO HITZA	
EHUN URTE - OMENALDIA 1998	
AZPEITIN ANTZERKI TOPAKETAK 1998an	
ANDER ARZELUS "LUZEAR" PLAZA	
LABUR-BILDUMA	
BERE IDATZIEN ETA BESTE ERATAKO LANEN ZERRENDA	
AMALIA OROIMENEAN	

ORRIA

01-02-03
04-05
06
06-07-08
09
10
11
11-12
12
13-14-15
14
16-17
18-19-20-21
22
23-24-25
26
27
29
30
31
32
33
34-35
36
37-38
39
39
40
41-42
43-44-45
46
47
48-49
50
51
52
53
54
57
58-59
60-61-62
63
63
64
65
66-67
68
69-70-71-72
73-74
75-76
78
79
80-81
82
83-84-85
86
87
88
89
91-92-93-94-95

AURKEZPENA

Ander Arzelus Toledo, (Andrés Manuel Arcelus Toledo zen izen abizen osoa, garaiko grafiarekin idatzita), Donostiako Alde Zaharrean jaio zen, 1898ko abuztuaren 15ean.

BATAIO Agiriaren Laburpena	
IDENTIFIKAZIOA	
Izena:	Andrés Manuel
Abizenak:	Arcelus, Toledo
Data:	1898-08-16
Aita:	Andrés, Arcelus, Artola
Ama:	Nazaria, Toledo, Gorriti
Oharrak:	-----
KOKAPENA	
Fondoa:	Parroquia Santa María del Coro, en DONOSTIA
Izenburua:	13º Bautismos
Folia/Oria:	59r

Anderen aitaren bataio agiria



Ander 1934an

“ARZELUS” ABIZENAREN JATORRIA

“Arzelus” abizenaren jatorria Errezilen dago baina ez da agertzen jatorriz era horretan, nik aurkitutako asaba zaharrenaren bataio-agirian, 1595 ean, Pedro “Arçalluz” eran agertzen da, hau da abizena orduan idazten zen era.

BATAIO Agiriaren Laburpena	
IDENTIFIKAZIOA	
Nombre:	Pedro
Apellidos:	Arçalluz, -----
Fecha:	1595-10-20
Padre:	Pedro, Arçalluz, -----
Madre:	-----, -----, -----
Observaciones:	-----
KOKAPENA	
Fondo:	San Martin de Tours, en ERREZIL
Título:	2º Bautismos
Folio/Página:	75

Hau da “Pedro Arçalluz”, aurkitutako asaba zaharrenaren bataio-agirian agertzen dana, itxuraz garai haietan amak etzuen axolarik

[Aurkibidea](#)

Anderren aita, Andrés Eufemiano Arcelus Artola, jaiotzez sendi hontako lehenengo donostiarra izan zen 1876ean, honen bataio agirian **“Arcelus”** abizena agertzen da lehenengo aldiz sendi hontako bataio agiri batean, hau jatorrizko **“Arçalluz”** en aldaketa bat da, arrazoiak ez daude oso argi, elizetako liburuetan idatzitako nahasketen ondorioz izan ditezke seguraski.

<i>Ezkontza Agiriaren Laburpena</i>		<i>BATAIO Agiriaren Laburpena</i>	
IDENTIFIKAZIOA		IDENTIFIKAZIOA	
Senarra:	Alexandro, Arcelus, Landa	Izena:	Andres Eufemiano
Emaztea:	Francisca Ygnacia, Ondarra, Aramendi	Abizenak:	Arcelus, Artola
Data:	1840-01-07	Data:	1876-01-20
Oharrak:	-----	Aita:	Joaquin, Arcelus, Ondarra
		Ama:	Jacinta, Artola, Gabarain
		Oharrak:	-----
KOKAPENA		KOKAPENA	
Fondoa:	San Sebastián de Soreasu, en AZPEITIA	Fondoa:	Basilica de Santa María del Coro, en DONOSTIA
Izenburua:	8º Matrimonios	Izenburua:	5º Bautismos
Folia/Orria:	250 rº	Folia/Orria:	252v

Gure sendian lehenengo aldiz “Arcelus” Azpeitian agertzen da 1840an ezkontz-agiria batean eta 1876an lehenengo aldiz bataio agiri batean Donostian.

Ala ere ez da hau **“Arcelus”** abizena lehenengo aldiz agertzen den agiria sendi hontan, lehenago, 1840an Andres Eufemianoren aitona, (Anderren birraitona) **“Alexandro Arzalluz Landa”** ren ezkontzako agirian ere agertzen da, bera Errezilen jaioa zen 1813an eta 1840an Azpeitin ezkondu zen, San Sebastian de Soreasu elizan, eta agiri horretan agertzen da lehenengo aldiz **“Arcelus”** eran idatzita abizena: **“Arzalluz”** etik **“Arcelus”**era aldatzen diote abizena elizako liburuan.


ARZALLUS etik ARZELUS era

Horren ondoren nahasketa ugari dago: bere semeak Azpeitian jaio ziren eta beren bataio-agiritan **Arzallus-Ondarra”** eran agertzen dira.

<i>Bataio Agiriaren Laburpena</i>	
IDENTIFIKAZIOA	
Izena:	Jose Joaquin Maria
Abizenak:	Arzallus, Ondarra
Data:	1845-10-09
Aita:	Alexandro, Arzallus, Landa
Ama:	Francisca Ygnacia, Ondarra, Aramendi
Oharrak:	-----
KOKAPENA	
Fondoa:	San Sebastián de Soreasu, en AZPEITIA
Izenburua:	15º Bautismos
Folia/Orria:	21 vº

Donostira bizitzera joan zen lehenengo “Arzelustarra”, Anderen aitona

Honen semea, **Jose Joaquin Maria “Arzallus-Ondarra”** izan zen sendi hontan Donostiara bizitzera joan zen lehenengoa, bertan 1870-07-04’an ezkondu zen Artola Gabaraindar Josefa Jacinta rekin Santa Maria elizan eta bere abizenak ezkontzako agirian ere aldatu zizkieten eta **“Arzallur-Ondarza”** agertzen da.



Ezkontza Agiriaren Laburpena	
IDENTIFIKAZIOA	
Senarra:	Jose Joaquin Maria, Arzallur, Ondarza
Emaztea:	Josefa Jacinta, Artola, Gabarain
Data:	1870-07-04
Oharrak:	-----
KOKAPENA	
Fondoa:	Santa Maria del Coro, en DONOSTIA
Izenburua:	3º Matrimonios
Folia/Orria:	146 vº



1870 ean ezkontzako argazkian

Arzelustarren sendiko Dostiako lehen aldian "Arzallur" agertzen da ezkontza-agirian

Hemendik aurrera, hauen semeen bataio-agirietan lehenengo aldiz "Arcelus" abizena agertzen da, adibidez Andres Eufemiano, Amalaren aitonarenean.

BATAIO Agiriaren Laburpena	
IDENTIFIKAZIOA	
Izena:	Andres Eufemiano
Abizenak:	Arcelus, Artola
Data:	1876-01-20
Aita:	Joaquin, Arcelus, Ondarra
Ama:	Jacinta, Artola, Gabarain
Oharrak:	-----
KOKAPENA	
Fondoa:	Basilica de Santa Maria del Coro, en DONOSTIA
Izenburua:	5º Bautismos
Folia/Orria:	252v

Andres Eufemianoren ondorengoek "Arcelus" erabiltzen jarraitu dute, grafia ezberdinekin adarraren arabera: "Arcelus" "Arzelus" edota "Artzelus", baina Andresen anaien batek behintzat berraldatu zuen "Arzallus"era eta horrela erabiltzen jarraitu dute adar hortako ondorengoak.

Andres Eufemiano, Anderen aita, 1897-10-07an, Toledo Gorrititar Nazarirekin ezkondu zen Donostian, San Ignazio elizan.

Ezkontza Agiriaren Laburpena	
IDENTIFIKAZIOA	
Senarra:	Andre Eufemiano, Arcelus, Artola
Emaztea:	Nazaria , Toledo, Gorriti
Data:	1897-10-07
Oharrak:	-----
KOKAPENA	
Fondoa:	San Ignacio de Loyola, DONOSTIA
Izenburua:	1º Matrimonios
Folia/Orria:	138 rº

Andres Eufemiano eta Nazariren ezkontza-agiria 1897an

“TOLEDO” ABIZENAREN JATORRIA

Toledo Gorriti'tar Nazari, Ander'en ama zen, Donostian jaioa 1879-08-04an. Bere aita, Toledo Aramburu'tar Rufino Astigarragarra zen eta ama, Gorriti Muguerza'tar Victoriana Zumaiarra.

Hauek 1861ean Bittoriren herrian, Zumaian ezkondu eta Donostian bizi izan ziran, bertan jaio zen Nazari.

EZKONTZA Agiriaren Laburpena	
IDENTIFIKAZIOA	
Esposo:	Rufino, Toledo, Ascarreta
Esposa:	Victoriana Josefa, Gorriti, Muguerza
Fecha:	1861-11-04
Observaciones:	-----
KOKAPENA	
Fondo:	San Miguel Arcángel, en Artadi - ZUMAIA
Título:	1º Matrimonios
Folio/Página:	24 rº

Anderen amaren gurasoak, bere aitona amonak

Bataio Agiriaren Laburpena	
IDENTIFIKAZIOA	
Izena:	Nazaria
Abizenak:	Toledo, Gorriti
Data:	1876-08-04
Aita:	Rufino, Toledo, Aramburu
Ama:	Victoriana, Gorriti, Muguerza
Oharrak:	-----
KOKAPENA	
Fondoa:	San Vicente Mártir, en DONOSTIA
Izenburua:	16º Bautismos

Anderen ama, Nazari Toledo

Oso atzerantz joan behar da “Toledo” abizenaren jatorriaren berri izateko, 11 belaunaldi atzerago, hor aurkitzen ditugu 1616 eta 1618an bi “Juan Toledo” izenarekin Amezketa, “Toledo auzoan”. Gaur egun hor jarraitzen dute hiru baserriak, Toledo “bitartea”, “goena” eta “saletxea”, bi, berriztatuta eta bat berriztatze lanetan hari ziren 2012an.

Bataio Agiriaren Laburpena	
IDENTIFIKAZIOA	
Izena:	Juan
Abizenak:	Toledo barrena, Aguirre
Data:	1618-02-02
Aita:	Juan, Toledo barrena, -----
Ama:	Catalina, Aguirre, -----
Oharrak:	-----
KOKAPENA	
Fondoa:	San Bartolomé, en AMEZKETA
Izenburua:	1ºB Bautismos
Folioa/Orria:	13 rº

Bataio Agiriaren Laburpena	
IDENTIFIKAZIOA	
Izena:	Juan Lopez
Abizenak:	Toledo, Aguirre
Data:	1616-11-06
Aita:	Martin, Toledo, -----
Ama:	Maria, Aguirre, -----
Oharrak:	-----
KOKAPENA	
Fondoa:	San Bartolomé, en AMEZKETA
Izenburua:	1ºB Bautismos
Folioa/Orria:	11 rº

Ez dakit ziur zein izango zen hauetan sendikoen asaba, baina bietakoren bat izango zen segurua.

[Aurkibidea](#)



Toledo bitartea 2012an



Toledo Saletxea" berriztatze lanetan, atzean "Goena"ren tehilatua zatia, 2012'an

Hauen ondorengoak Amezketatik kanporatu ziren eta Abaltzisketa, Hernani eta Astigarragatik pasata Rufino 1861an Donostian ezkondu zen eta alde zaharrean jarraitu zuen bizitza, bertan izan zuten sendia eta 1864ean Nazari, Amalaren amona jaio zen.

1996an bere lehengusu Dunixik hau bidali zion Amaleri:

Nere aitak egunkari zati batean, artikulua zuen moztuta. Ze egunkaria zen? Ze egunetakoa?

Ori pixka bat argitzeko artikulua onen atzean azaltzen dira pelota partidu batzuk eta bat, adiezagria izan liteke "El domingo, en el Gros.- A las once de la mañana. Semifinal nacional manomanista: Acarregui contra Arriarán, sacando ambos libremente."...

Irun-en 1996ko Apirillaren 21ean

Dunixi Arcelus Sagardia Toledo

(Oharra: Acarregui hiru final jokatu zituen, 1946, 1950, 1951n, etzuen batere irabazi eta Arriaranek berriz 4 final jokatu zituen bi irabaziaz, 1955 eta 1956an eta bigarren gelditu zen 1957 eta 1958an. Beraz datu horien arabera, 1955 urtea aldera izango zen egunkari horren data g.g.b.)



Nazari Toledo Gorriti
1876-08-04 / 1931-06-25

¿ Es vasco el apellido Toledo?

Consulta. — Desde Bilbao, Javier Goena pregunta: "¿Es vasco o no el apellido Toledo?"

Respuesta. — De suyo, a primera vista, no parece vasco, aunque lo sean, sin duda alguna, los que llevan este apellido en nuestro país. De todas suertes, en el "Nomenclator de la provincia de Guipúzcoa" editado hacia el año 1864, se puede ver que en Guipúzcoa existen los siguientes caseríos de nombre "Toledo": dos en San Sebastián, los llamados "Toledo-bea" y "Toledo-goya". Y tres caseríos más en Amézqueta: "Toledo-bitartea", "Toledo-goena" y "Toledo-salechea".

A veces se dan en Guipúzcoa nombres que no parecen originarios del país para designar caseríos: en Régil tenemos un caserío "Portugal"; en Zumaya y en Alza existen los caseríos que se llaman "Miravalles"; hay un "Montefrío" en Hernani; un "Babilonia", un "Burgos" y un "Fortaleza", en Oyarzun. El nombre Guerra es también bastante frecuente, aunque parece demostrado que es una corrupción de Aguerre, de Aguirre.

De cualquier forma que sea, el apellido Toledo es corriente y muy usado en Guipúzcoa. Tal vez el "Seminario de Lenguas pre-románicas", que se reúne en la Diputación de Guipúzcoa, llegue con el tiempo a descomponer la raíz de este apellido, penetrando también las variaciones fonéticas que al cabo de los tiempos haya podido experimentar esa voz. Porque pocos, por ejemplo, y los casos podrían multiplicarse, reconocen el Enciso en Anzizu, el apellido Xabier en el Echeverría originario, el Narváez en Narbaiza, el Idiáquez en Idiakaitz.

Los Toledo de Amézqueta probaron su hidalguía en aquella misma villa a mediados del siglo XVII, lo cual indica, normalmente, que desde mucho tiempo atrás vivían Toledos en Amézqueta. La mayoría de los Toledo que hay en Guipúzcoa proceden de aquella villa, y, por lo tanto, pueden preciarse de su viejísima raigambre guipuzcoana. La casa Toledo, de Amézqueta, tiene escudo. Es de sinople, es decir, verde, con un castillo de plata.

[Aurkibidea](#)

GURASOAK

Bere aita, Andres Arzelus (Andrés Eufemiano Arcelus Artola), hau ere donostiarra zen, familia oneko semea, kontratista (beste ofizioen artean) eta zaletu mailan oso pelotari bikaina. 1897ko urriaren 7an Naxari Toledo Gorriti andereño donostiarrarekin ezkondu eta hamaika seme-alaba izan zituzten. Andres, bikotearen lehen semea izan zen. San Jeronimo kaleko 23.an (Hilabete batzuek zituela kale behereko 21 era joan ziran) beraz, ez zen inoiz saltsarik falta izan, urteak pasa ahala gero eta gehiago baitziren mahaiondora bildutako seme-alabak.

Arzelustarrak Donostiako lehenetariko bizkaitarrak -hots, Sabino Aranaren irakaskuntzen jarraitzaileak izan ziren.

Abertzaletasunarekin lotutako jaietan, San Jeronimo kalera begiratzen zuten balkoiak ikurrinez eta apaingarri gorri, berde eta zuriez betetzen ziren. Arzelustarren etxeko balkoien itxura ikusgarria Donostiako historia txikira pasa da, oraindik bai baitago Gipuzkoako hiriburuan kolore esanguratsu haiez gogoratzen denik.¹



Gurasoak, Andres eta Nazari 1897-10-7an



Bere lehenengo argazkia

IKASKETAK

*Ikasketak, Aldapeta'ko "Marianistas"etan egin zituen. Ikasle mallan, langillea eta argia izan zan. Bertan izan zituen notak bikainak izan ziran benetan, ohorezko aipamen ugari jaso izan zituen.*²

Ondoren Injeniaritzako ikasketak egin nahi izan bazituen ere ez zuen horretarako aukerarik izan. Familia gero eta zabalagoaren behar ekonomikoak lanean lehenbailehen hastera bultzatu zuen, eta 16 urtekin Donostiako Udala Kutxan sartu zenean Andresen soldata oso lagungarri izan zitzairen familian.¹




Lehenengo jaunartzean

[Aurkibidea](#)


¹ XABIER ARZELUS DOMINGUEZ ek «BIDEGILEAK»en

² Inazio Mujika Iraolak «Luzean» liburuan




Ander ikasle argia eta langilea izan zen Marianistetako ikastetxean, eta behin baino gehiagotan azaldu zen Ohorezko Koadroetan eta antzekoetan. Ikastetxe hura oso ospe handikoa zen, eta ikasleen uniformeak benetan dotorea

Guda ondoren, eta beste lan batzuetan izanda gero, Lanfus jauna, kutxako zuzendari zenareren medioz berriro kutxan lanean jarraitzea lortu zuen, bertan haritu zen 1946an poliziak bere bila joan eta erbeste-teratu behar izan zuen artean. Baina hontaz aurrerago harituko naiz.



Kutxako ziurtagiria 1919-10-10






Eskolako ziurtagiria 1915-01-10

- 1.- Marianistetan ikasketak bukatu ondoko ikasketen eta bere izakeraren ziurtagiria 1915-01-10ean.
- 2.- Donostiako Kutxako ziurtagiri bat 1919-10-10ean.

[Aurkibidea](#)

ESKOLAKO NOTAK

Ikasketetan izan zituen notak bikainak ziran benetan, ohorezko aipamen ugari jaso izan zituen.



EZKONGAIETAN

Amalia Arrieta Zunda, donostiarra izan arren bere gurasoak Nafarrak ziren, aita Telmo Arrieta Iruinan jaioa eta ama Teresa Zunda Iturendarra.

Bere aita erdelduna zen, “Carlista” eta “Bizkaitarren” etsai sutsua itxuraz eta bere ama Teresa “euskaldun utsa” baina Amalia oso txikia zela hil zen bere ama eta bere Aita eta haren amarekin hezitu zenez, etzuen bere amaren hizkuntza ikasterik izan txikitan, ezta bere bizi guztian ere, nahiz eta berak majisterioa egin eta “maestra” bezela haritu etzuen hizkuntzak ikasteko iaotasunik.



Anderekin harremanak hasita, bere aitari Donostiako “Bizkaitar” sendi ezagunenaren semearekin ezkonduko zela esatea etzen erraza izango, baina itxuraz bere aitak etzuen oso gaizki hartu berri hura.



EZKONTZA 1923 ETA SENDIA



Ander eta Amalia ezkontza egunean 1923an

Ander Arzelus -dagoeneko Luzear bezala ezaguna zena- eta **Amalia Arrieta Zunda**, bera donostiarra izan arren, esan bezela, bere gurasoak Nafarrak ziren, Donostiako Santa Maria elizan ezkondu ziren eta Hondarribi kaleko 22-3^{er}a joan ziren bizitzera.

Bikoteak lau alaba- seme izan zituzten: **1924-02-19**an **Amale**, lehenengo alaba jaio zen; **1928-04-06**an bigarrena **Itziar**; **1930-07-20**an **Ander** eta **1932-09-09**an **Iñaki**.

Familia zaintzeaz gain, Anderen kezka nagusia euskararen eta aberriaren alde egitea izan zen.

Haatik, anai-arreba talde zabala laster gurasorik gabe geratu zen, aita eta ama neumoniaz hil baitziren oso epe laburrean, ama 1931-06-25ean 54 urtekin eta aita 1935-01-23an 59 urtekin, oraindik gazte zirelarik. Bitorenek, bikotearen lehen alaba zenak, familiaren arduraren nagusia hartu behar izan zuen, beste anai-arrebentzat amarena eginik, dagoeneko ezkondua zegoen Andresek nolabait «aitarena» egiten zuelarik.

Geroago Bitorenek gerra garaian eginiko lana aipatzekoa da, bera izan baitzen gerrak bete betean harrapatu zituen Andres, Luis, Sabin eta Joxebaren alde (azken hirurok armak eskuetan gudari aritu zirenak) atsedetik eta eten gabe lagundu zituen pertsona. Familiarenganako bere *betebeharra* amaitu eta berehala, gerra ondoren Bitorene moja sartu zen. Erabaki berdina hartua zuten gainera, gerra aurretik, Maritxu eta Mirentxu bere ahizpek.³

Amalek bere liburuxkan hau dio bere aitak garai hartan bere senidearekiko izandako erantzukizuna:

Gaur egun bere bi anai, Luis eta Sabin, eta arreba bat, Miren, ditugu gure artean, eta bi anai auengana jo dei garai artako berriren bat jakin naiean. Onela diote:

"Zaarrena zan eta guretzat aita bat bezela izan zan", Luis'ek.


"Bai, guretzat, nola esango nuke..., eredua izan zan", Sabin'ek.

Eresia maitatzen ere berarengandik jaso zutela gogoan dute:

"La Bohème' ia buruz genekin ta..." Sabin'ek.

Oso zintzoa zala diote abo batez. Eta leen esan bezela, eredutzat zutela.

Hau 1998an idatzi zuenez oraindik bere osaba Luis, Sabin eta Miren, Luzearen anai-arrebak, bizirik ziren, gaur egun Amale bera ere ez dugu gure artean jadanik baina hauen esanak bere liburuxkari esker iritxi zaizkigu.



Amalerekin 1924ko epaillan

[Aurkibidea](#)

³ XABIER ARZELUS DOMINGUEZ ek «BIDEGILEAK»en

LEHENENGO IDAZLANAK

Luzear oraindik oso gazte zenean, eta gorago aipatu bezala, *bizkaitarren* abertzaletasuna nahiko berria zen Gipuzkoan, Donostiako beste gazte abertzale batzuekin bildu eta euskararen eta Euzkadiren alde lanean hasi zen. Donostiako *Euzko Gaztedik* eta GBBk kaleratutako *Gipuzkoarra* aldizkariak Luzearren lehen idazkiak argitaratu zituen.⁴

1920 urtean, esaterako –hots, kazetariak 22 urteko adina zuenean– emakumeak politikan ere parte hartu behar zuela defenditu zuen sutuki.³

Donostiako abertzaleen buru zen Mikel Urretaren Maria Zulaika emaztea, emakumeen parte hartzea aztertuko zuen batzorde berezi baten buru egin zuten. Batzorde berean, beste burukide batzuen emazteek ere parte hartuko zuten.

1920.eko aipatu artikuluan, Luzear gazteak batzordearen osatzea txalotu eta, bide batez, emakumeek zegokien lekua eskuratzeko aurkituko zituzten oztopoak aztertu eta salatu zituen. «**Ala ere oztopo oyek gaintutako dituzte emakumeak, zailtasun oyek ez bait dute geienetan oinarri finkorik**», zioen kazetariak.


Euzko Gaztediak 1920.eko urrian ospatutako bere bigarren batzarrean, 300 ordezkarietatik 60 emakumezkoak izan ziren, eta beste akordioen artean emakumeak euskal prentsa hedatzeko lan egingo zutela erabaki zuten, euskal prentsa hori abertzalea izan ala ez. Luzearren pentsamoldea ezagututa, aipatu erabakiaren alde egingo zuela pentsa liteke.

«**LUZEAR**»: Idazten hasi eta berehala asmatu zuen, orduan ohikoa zen bezala (beharrezkoa ere bai, ez ahaztu diktadurapean zirela), bitzta osoan idazlanak izenpetzeko erabili zuen izenordea: "Luzear"(Arzeluz alderantziz jarria, alegia).⁵

«ÁRGIA» EUSKARAZ IDATZITAKO ASTEKARI BAT

Gipuzkoako gazte abertzaleen garai hartako kezka nagusienetako bat, osorik euskaraz idatzitako aldizkari bat lehenbailehen kaleratzea zen, nahitaezkozkat jotzen baitzuten euskara suspertzeko. 1921.eko maiatzean, *Azkatasuna* izeneko euskal aldizkaria argitaratzen saiatu ziren. «Jaun-Goikua eta Lege-zarra ikurritzapean irtengo da eta ikurriñ orri dagokion bezela Arana-Goiri'tar Sabin'ek euzkotarrai erakutsitako irakaspenak argi eta garbi euzkaldunen artean zabaltzea izango da bere eginkizun nagusiena», zioten gazteek *Euzkadi* egunkarian. Aldizkari orrialde bat «emakumezkoen gaiez» izango zela jakinarazi zuten, gainera.

Proiektuak ez zuen, ahatik, aurrera egin, eta euskal aldizkariaren ideia *Argia* asterokoarekin gauzatuko zen, 1921ean. **Luzear, Argia-ren fundatzaileetako bat izan zen** Ambrosio Zatarain, Ricardo Leizaola, Gregorio Mujika, Victor Garitaonandia, Ramon Inzagaray eta Jesus Carrerakin batera.⁵



zuan esakun biketara beren lanak aurkeztu dituzten euskaltzale jatorrak. Biketa orotan naiz euskeraz naiz ederaz idatzitako esakunak ezizen ziran, eta ederazko 495 esakun txofaren auzer-auré 1.411 euskal esakun aurkeztu zirala jakite utsak biotza pozer bete zigun. ¡Euskal idazleak lane-rako geru dandela adiezazten baitu!

Baia erabakia jakin degunetik gal-tzetan sartzen ez gerala gabiltza, aro afo eginda.

Batzaldi oritara aurkeztu diranak, iri: taldean banatu dituzte:

Lenengo malan, amabi esakun edo gelaigo idatzi dituzienak; bigarrenean, seiitik amabira bitartekoak; irugarrenean, banakakoak.

Lenengo malan lau sari banatu dira: *lauak euskaldunentzat* izan dira: 1'gon, 200 laurleko, Garitaonandia'tar Bitof, gure zuzendari jaunak irabazi du. Bostekoo estutu diogu ta badaki bere garalpenak zenbat poztu gaitun, —2'garfena, 125 laurleko, Mujika'tar

Emiliano, Albiztu'go adiskide onak eta beste biak, 100'na laurleko, Oñati'ko Laterandaf Alta Lirika ta Alta Larakoetxea, gure lagun on onak abek ere, eraman dituzte.

Bigarfen malan bi sari ziran, eta ba-ta, 100 laurleko, Garbizu'tar Jon, Pasaite'ak eta beste, 75 laurleko, Al-berdi'tar Andolin, Sorala'zefak, jaso dituzte. Biak etre onan adiskide be-netakoak ditugu.

Guzti-guztiak *euskeraz* egindako lanak aurkeztu dituzte ta ikus'en da-nez *ederazkoak* baño obeak, erabat, afunt sariak irabazirik. Zorionak, zo-riónak, eta zorionak.

Irugarfen malan ere 75 sariatik 45 euskal esakunentzat izan dira.

Gu, egia esan, zorluta gaude: Esakunak itz guxitan egi sakanak azaldu beaf ditu, gauza mamisua degu be-raz. Ez uste ain arazo efexa danik gaurek labur eta arigiro azaltzea, ez; askotan gaurek puztutza askoz efe-xago izaten da. Eskerak beraz eus-kaltzale guztien izenean *euskeraren gaitasun* berezia ain egoki azaldu du-ten anal-areba jator guztial, batez ere eztago nori esan bearik, eta beste onelako gurenda baten bila jarai.

LUZEAR

[Aurkibidea](#)

⁴ XABIER ARZELUS DOMINGUEZ ek «BIDEGILEAK»en

⁵ Inazio Mujika Iraolak «Luzear» liburuan

1921-1930 herrietako berriemaileen saila

"Euskalerriko berriak", kudeatu zuen Argian.

Ez dakit ausartegia ez ote den esatea zutabe-idazle aurrekaria izan zela Luzear; hurrena daude erreportaje tankerako idazlanak, Lizarrako bilera politikoa dela, Ama Birjina Ezkion agertu dela, Olerti Eguna dela, Antzerti Eguna dela, edo Txirritaren omenaldia dela, han dago Luzear bere aterkiarekin eta beti baten batek autoz eramana edo bere kasa trenaz joanda, ikusi duenaren kontakizun bizia egiten; eta azkenik daude handik eta hemendik hartutako antzerkitxo laburrak, ipuintxoak eta abar berak sortutakoak edo beste hizkuntzaren batetik berak egokitutakoak. Azken horiek gehienbat. Ez dugu ahaztu behar hori dena Donostiako Aurrezki Kutxako lanaz gain egiten zuela. Alegia, Aurrezki Kutxatik ateratzen zuela bizibidea, eta euskarari eskaintzen ziola denbora libre a osorik.⁶

...Hura izan zuen Arzelusek euskal idazle izateko aurreneko eskola.

Argiaren zuzendari izatera ere iritsi zen, Bitor Garitaonandia hil zenean (1929), baina denbora gutxiko. Hain zuzen ere, beste proiektu handi batean sartu baitzen buru-belarri.⁴

Horrela ematen du berak, 1931n, Gregorio Mujika hil dela eta, bere irakasleen berri:

"Beste eriotz negargarri batek, Karrera apaiz jaun argiarenak, onen utsa betetzera eraman nindun [Argiara]. 'Anabi'-ri [Augustin Anabitarteri] eskerrak, nere burua euskal elerti bidean arkitu nuanean, nere aldamenen neramatzien bidelagunai begiraturik, neronen ausardiak txunditu ninduan: 'Garbi' (Garitaonandiatar Bitor), 'Elurmendi' (Intzagarai apaiz jauna), 'Jeme' (Mujikatar Gregorio), 'Anabi' bera, 'Egizale'. Baña beingoz ez nuan atzera egin, eta 'Kirikiño' elerti azikeran aurzai bezela izan banuan, oek izan ziran aurrera bideak urratu zizkidaten lagun ikasiagoak. Argian, ditadurako urteak zalantza bizian, ekaitzik gogorrean "oraingo onek zapalduko gatxiok" esanaz olatu amorratuai begira itxaso erdian larritasunik gorrienak elkarrekin ikusi dituzten arrantzale gizajoak bezela bizitu geranok ezin iñola ere elkar aztu, naiz ta gero, nola ez dakigula, oraindik ere garbi ikusten ez degun eran, elkarrengandik, bat-batean, sakabanatuta arkitu".⁷

TXISTU


1926tik aurrera, borroka pertsonal batean jardun zuen: **Txistu** proiektua, haurrentzako aldizkari bat komikiz eta ipuinez betea, *Argiaren* inprimategian argitaratu eta berarekin batera banatu izan zen, ez eragozpenik gabe, lehenbiziko zenbakia 1927ko urtarrilan agertu zen eta aguro itxi zuten diktadura zela medio, baina errepublikarekin berpiztu zuten. Batzuek diotenez gudaren hasiera arte irahun omen zuen, baina beste batzuek ordez, etzuela hainbeste iraun diote. Miel A. Elustondok 2020ko ekainaren 10ean BERRIA Egunkarian dionez, 16 zenbaki argitaratu ziren, gaur egun Koldo Mitxelena Kulturunean jasota daude Antonio Zabalen funtsen artean.⁸

Geroztik, 1935 ean, saiatu ziren beste ahantzeko proiektu batean, berak "El Día"n idatzitakoaren arabera, honek "**POXPOLIN**" izena zuen eta itxuraz zabaltzeko arazoak izan zituzten. Berak arazo hoiek gainditzeko proposamena egiten du [artikulu hontan](#):

... "G.B.B.'ko "Euskal Batzordea" k U.B.B. bakoitzari bialduko dizkio amabostero erri bakoitzean saldu bear diran "Poxpolin"ak. U.B.B.ak zarpina xentimo ordainduko ditu, ta amarna salduko dituan ez amabostean bein onenbeste ko bat irabazi dezake beretzat edota saltzalleari ordaintzeko."...⁷

Ez dakit nola bukatu zuen proiektu onek, ez dut aurkitu honen jarraipenarik, baina hala ere etzuen denbora asko irauteko denborarik izan ere guda urtebete geroago hasi baizen.

[Aurkibidea](#)



⁶ Inazio Mujika Iraolak «Luzear» liburuan

⁷ «Luzear»ek 1931n

⁸ Miel A. Elustondok BERRIAN 2020-06-10ean

EL DIA Donostiako egunkaria (1930-1936) aipagarri da, euskararen ghettoa (artikulu garrantzitsuenak erdaraz, bigarren mailakoak euskaraz) apurtzen lehena izan bide zelako - Koldo Mitxelenaren arabera-, Hegoaldean bederen, "Aitzol" en eraginez. Lehen orrialdean agertu ziren euskarazko artikulu franko, nahiz kultura eta bereziki literaturazkoak izan (olkerkariak etab.). Albisteak, jakina, gaztelaniaz zetozen, tokian tokikoak-edo ez baziren behintzat.⁹

Bertan "Euskal Orria"ren arduradun jarri zuten Luzear.

*El Díako "Euskal Orria"*n bere artikuluak argitaratzea ez ezik, eta batez ere, besterenak argitaratzea zuen buruhausterik handiena, eta idazle eginak eta ez hain eginak idazten jartzea izan zuen merituetariko bat. Mutila zen zirikatzen. Zirikatzen ditu idazleak, gehiago idatz dezaten; zirikatzen ditu haurrak, zerbait idatz dezaten; egunkariko linotipistak, akatsik egin ez dezaten; beste egunkarietako iritzi emaileak zirikatzen ditu...

El Díako zuzendaritza bera ere ez da libre geratzen. Euskarazko orrialde bakarra zeukan egunkariak, eta zazpi urteko bere ibilbidean nabarmen ikusten da zuzendaritzarekin eduki zuen tirabira, alde batetik, "Euskal Orria" euskal orri osoa izan zedin, eta, iragarkiak edo bestelako premiak zirela-eta, ez ziezaioten orri erdia jan; eta bestetik, euskara bere orri-txokotik atera eta lehen plamara eramateko. Euskararekiko konpromiso osoa eskatzen baitzuen:¹⁰ *"Itzez buruz gain eginda gaude. Gizonai gizon bezela itz egitea dagokio. Ta garbi esan: euskaltzaleak al zerate ala ez? Ez!? Onela, gauzak garbi, nor norekin gabiltzan jakiteko. Ta ez umeak bagiña bezela gurekin jostaketan ibilli. Jaunak, euskaltzale ezpazerate, jakin dezagun, oraintxe oneraño bete gera ta"* (LUZEARek)

Eztabaidak gogoko zituen Luzearrek, eta bero dihardu eztabaidan. Karlisten *La Constancia* eta ezkertiarren *La Voz de Guipúzcoa* egunkarietan argitaratzen ziren iritzi emaileen kontra ari zen sarri askotan. Baina baita *El Dían* bertan edo *Euzkadi* egunkari abertzaleetan agertutako iritzi batzuen kontra ere. Lauaxetarekin badu eztabaida sutsu pare bat, "Gurbindo"rekin beste bat, eta beste hainbatekin ere bai. Nor zen orduantxe sortzen ari den Euskal Idazleen Batzan sartzeko gai? Batzuek zioten, Lauaxeta tarteko, abertzaleak bakarrik sar zitezkeela delako elkarte horretan; Luzearrek, Lizardi dakar gogora kontrako iritziaren alde egiteko: ¹¹*"Aberri errota ibiltzeko, abertzale guzión kemenak bat egiñik ere ez ditugu naikoa. Abertzaletasuna, gurea dana maitasunez zaitzea izanik, euskera, aberri ezaugarririk bizi ta nabarmenena maite duanak, aberria neurri txikian bederik maite du. Ta aberri maitasun apur oiekin, aritxo bat emendik, beste bat andik, errekatxoa osa-tu; errekatxo onen ura beste arenarekin bat egiñik, ibaitxoa; ibai bat, bi, iru ibairen indarra batu ta gure indarrari erantsita, guzien errota ibilaraztea ez ote genuke errezagoa?". Luzearren eztabaidarik gogokoena, sutsuena, euskara jakintza bidean eragozpen ikusten zutenen aurkakoa da: "Ez da munduan jakintza bide izateko gai ez dan izkerarik. Gor-mutuai ere erakutsi bear zaiona, beren izkera (?) bereziz egin bearko zaie, Fray Luis de Leon-en Odarik ederrenak belarri ertzera esatea alperrikakoa litzaken ezker. Danik eta*




⁹ EUSKAL KAZETARITZAREN SORRERA. KAZETA ETA KAZETARI GARRANTZITSUAK 1945 ARTE (hitzaldia, Nafarroako Unibertsitatea, 2004-II-26) X. Altzibar

¹⁰ Inazio Mujika Iraolak «Luzear» liburuan

¹¹ Inazio Mujika Iraolak «Luzear» liburuan

izkuntzik atzeratuanagatik ere ezin esan leike, beraz, jakintza gaitan eragozpen danik. Gañontzean españeragatik ere berdin esan genezake, doixtar eta parantzetarrek beren izkeratan idatzi oi dituen idazti sakonak, españera utsa dakitenentzat, Castelaren itzaldirik apañena gor-mutuentzat bezin lokotx uts lirakelako. Euskera, berez, beste edozein izkuntz bezin aberatsa izanik, ez bedi beñere esan jakintza bidean eragozpen danik. Geron buruen gain bota dezagun erru guzia, esan dezagun argi ez degula euskera jakintza-izkera izatea nai, gerok maite ez degulako besterik ez".¹²

Eguarri Abestia osorik «El día» egunkarian.



1931ko martxoaren 15ean hasi eta apirilaren 30ean buka,
Dickens'en "Eguarri Abestia" osorik «El día» egunkarian argitaratu zuten.

Eguarri Abestiaren azalak "El Día" egunkarian

Koldo Mitxelenaren esanetan:

Hamasei urte egin gabe, Errenterian. Martxoaren zen. Epaila. Egutero bezala *El Día* erosi, eta *Euskal Orrian* iragarki hau:

"IGANDEAN asiko gera noski, ingeleratik itzulitako 'nobelatxo' bizi, irakurgarri, labur bat argitaratzen. Ebaki ta jasotzeko eran azalduko da". Jakin-minak egon zen igandea noiz etorriko. Larunbatean beste iragarki bat: "Dollorkeria... Eguarri... Alaitasuna... Illunpea... Kate soñuak... Sorginkeria... Atzo... Gaur... Biyar... Dickens'en 'Eguarri Abestia' biyar ezker 'Euskal Orria'n".

Ordurako hasita zegoen euskal gauzak irakurtzen. *Argia* batez ere. Liburutxoren bat edo beste ere bai. Baina Dickens... Hainbeste aldiz irakurritako *David Copperfield*en egilea, euskaratuta! Ezin galdu inola ere. Igandean, goizean goiz jaitsi zen egunkariaren bila. Alamedan zabaldu zuen. Aulki batean eserita ikusi zuen orri barrenean, "EGUARRI ABESTIA / Charles Dickens / 'Luzear'ek euskeratua / El Día / 1931 / Donostia". Dickens-en irudia zetorren aldameneko orrian. Nobelaren hasierarik ez. Ohar bat:

"Gaur asten gera, egunkari au eraberritu genunean agindutakoa, betetzen. Ez degu gure asmoa osoro egiterik izan. Euskal irakurgarri atsegiñenatoko bat argitaratzekotan baigebiltzan. Baña ori ezin izan dan ezker, beste bide batetik jo degu: arrotz elertietara jua eta idazle ospetsuenen idaztirik gallenenak euskeratzeko gogo biziak garabil. Saio bidez, Dickens, idazle bikañaren ipui bat dakartzutegu. Aur bihurturik irakur ezazute biotzikaraz dardar jarri zaitzuten; baña larrientzat ere ikasbide egokirik arkituko dezute aur-ipuitxo azalpean. Zuei dagokizute, saio au atsegin zaizuten ala ez azaltzea: txaloak, izatekotan, idazlearentzat bitez... euskeratzalleak ez baitio akats pilla bat besterik erantsi. Gure idazti-zatiak gaurko neurri berean azalduko dira. Ara nola jaso bear dituzuten: Aurrena, guzia ixten duten lerrotatik kontuz ebaki. Gero, ezkerrera daukazuten goitik-berako lerrotxo ortatik goruntz zuengantuz tolestu (doblatur). Erdi-erdiko lerrotatik berriz beste aldera, atzeruntz tolestu. Eta ortan, onela geldituko zaizute gaurko zatitxoak: Ezkerrera idaztia josteko utsunea (El día ta abar diona). Aurrez-aurre, idazti gaña. Atzera tolestuta, Dickens-en irudia. Ta egutero auxe egiten dezutela idazti polit baten jabe zerate laster. Agur ba, ta egutero artu El Día".¹²

Aurkibidea

¹² "Luzear"ek

ABERTZALETASUNA ETA EUZKERAZALETASUNA

Bera hain EUZKERAZALE eta ABERTZALE izanik, bere kezka nagusienetako bat zera zen: "ABERTZALE" izan ahal izatekeon berrak "EUZKALTZALE" izan gabe? Bere iritzia "ezinezkoa zela" zen, ez baliteke izan "aberririk" bere izkuntza gabe, hau da Euzkadik-Euzkera beharrezko zuela "aberria" izateko eta abertzaleak ez ba ziren euzkaltzaleak ezin ziren abertzaleak inondik izan. Hori da argi esaten duena bere idatzi guztietan eta abertzale ez euskaldunak euskera ikastea beren helburu nagusia izan behar zutela.



Lauaxetarekin eztabaidabaren zatia bat

Alde guztietan ikusten zuen euskeraren egoera negargarria, baina etzuen sekula amore ematen bere burrukan.

Gai honi buruz askotan idatzi ohi zuen el Día n, hemen jar-tzen ditut adibide batzuek:

"Lauaxeta" rekin naiz eta lagunak izan, izaten zituen eztabai-dak, hor harek esandakoari erantzunetako bat.



Euzko Etxean batzarra erderaz...

Euzko Etxean 1934 egindako batzar batean ger-tatutakoa kontatzen du eta besteak beste zera dio, bera sartu zenean denak erderaz hari zirela eta berak "mindurik" hitza eskatu zuen eta mo-mentuan hari ziren gaiari buruz "anka sartze" bat egin zuen nahita eta segidan erantzun zie-ten zuzentzen, baina "euskeraz" berak honela egin zuelako eta aurrera gehiena euskeraz egi-ten jarraitu zuten bere esanetan. Horrelako ekintzekin euskeraz hitzegiten jartzen zituen gehienak. Gero jarraitzen du batzarrak euskeraz egin beharri buruz izan zuen eztabaidarekin. Dionez ere ba zegoen irakasle zar bat eta "Eu-zko Etxea" ren orde "Erdal Etxea" deitu beha-rko zitzaiola zioen.

idatzi eta esan bakarrik egiten, ikastaroak antolatzen ere saiatzen zan, ba ditu-gu ekintza haien berri ere El Día ko idazlanetan, hontan irakurri dezakegu Irra-tian euakera ikasketak ematen zitula eta jakin nahi zuen zenbat entzule-jarrai-tzaile zituen eta eskatu zieten bidaltzeko eskutitxo edo notatxorenbat, baina etzuen askorik jaso esaten denez.

Baina etzuen

Baita ere kontatzen du berak ematen zituen EGIK antolatu-tako irakasketetan 60 bat hasi zirela eta as-tebatean 12 geldit-zen zitzaizkiola, bai-na etzuen amore ematen.

Euzko Etxean ere an-tolatzen zituzten IRA, Jone eta berak au-rrentzako ikastaro-txoak.



Aurkibidea



"EGI"KO BATZARRA EUSKERAZ !

EUSKAL G

¿Zalla dala? ¡Orra ba egin!

Aleluia.

Euskaltzainak baskunetok aitekera, esia genun gaurdano abertzale batza-
rean, ziotenez. Abertzale izanagatik euskerarik ez jakitea gortia bezalako:
gortatzen daz bezain, zorizafes. ¿Ta abek zer egin bear zuten?

Donostia'ko Eusko Gaztedi'k urteroko batzara zuan Urteberri egunez. Ta
gal guziak erabili esilik "Eskabide ta galderak" ostrial gunabarerako utzi bear
izan zituzten.

Ez nuan urteberri batzareratzetik izan, baña ostiralez, eta esan zidatena
necoren belariz jaso nahirik, berandutxo bederik, eldu nitzen Eusko Gaztedi'k
orainxe ilabete irikitako areto apaiera.

Gaste pala edera, eusko aiki guziak beterik exerita, beste alibeste bai zu-
tik, ta guziak adi-adi, buru ta batzarkide arteko elkaritzeketa.

Ta jaunak, afitu zaitzete, inork ere itzik ez erderan. Erderaz inork ere
halk ez. Guziak, gumi-guziak euskeraz ari dira. Opeiakorik egundano ikusi ga-
beak gitan gure etxean. Euskera ta erdera nastuan erabili izan dira, euskera
utzes ez genuan oraindik abertzale arteko bilerarik egin Donostia'n, ni oroi-
tzen naitzela beintzat.

¡Oso zala omen zan noski! Ora ba egin. Nai izatea nalkoa.

Bi nai izate mota nabari ditente ordea, Eusko Gaztedi'ko batzarkide ar-
tean.

Euskaldunena, bat; euskeraz jakirik, euskeraz itz egin nai izan zutenena.
Euskaldun ez ditzenena, bestea; euskeraz egiteko gauza izan ez, ta ixilik
egon zarenena.

¿Ta zer esatea nai dezute? Askos guzigo ikutu nindun lengo egunean, bi-
garen aben zatasunak. Bat nalkoa izango zan, ta aako zirala esango nuke ze-
redorer esateko gogo biziarekin zudenak, jeki ta ango euskal ote gogo-gogo
ura ten ta ondartzeko. Ta etzan inortxo ere jeki.

Bazirudin ulerizen etzuten ikuntz arek illuratu, zeuzkala. "Ori dek ire
lekera. — esaten zioten nurbait beren biotz abertzaleak —, ori dek eusko go-
goaren giltza, ta ofen jabe egiten ez aizen bitartean, etzak ire burua abertza-
le pasatze jo". Ta euskerari omen agurik bikafena egitas, ixilik egon ziran.

¡Ixilik! Sofen bafenera itz egiten zuan ikultusuna uraxe. Euskaldun etiak
erdakkeria kulantzen ibili zaitziguin erdal alari askon "Perdonad si os hablo
en el idioma del invasor" eta onelako beriketak baño pafenago sartzen zan
bai, ixiltasun arek samin-altorpena.

Astera bikafia eman dizute urteari, aberkide gazteok, **EUSKERAREN
URTEA** bear degun 1935'gafenari.

Baña, gazteak, gaur zuen ixilik egotea biots-biotza txalotu badizuet, ez
onegatik usle izan zuen eginbeatu ori danik. Bai zera. Oeur ondo dagona bi-
yar oso galki legoke. Datoren astean astia, euskal ikastaroa izango dezute
Gaztedian bertan, Eidu gogoz, ekin, eta ta datoren urtean zuen itzegin nala,
ta emendik bi urtera zuen itzaldiak txalotzeko poza ematen diguzuten.

Ta zuek batzordeko adiskide malteak, auffera ekindako bidetik. Ez asti-
rik galdu zer egin bear dan amstu esilik: orixe baita egin bear dana, en-
goan egindakoa. Lan astuna dala, eta zer? ¿Ez ote da au bein astun ta za-
la, gure gaztediari dantza lotu zikitatitk aldeinarrantea? Ta inori gburu-
ratu ai zala alare, gazteak gifairen mende utzila etezago gure-gaiztuko geni-
taketako, eusko "berbena"k eratu ta "fostrotak" dantzetzen erakustea?

Ez denagun abertzaletasuna astunegia egin, ez baña naitanazeko giletan
bati zuten juktuan, erakutsi gazteak, erakutsi, abertzale izatez ez dala "nun
nere zogoa, su nere zankoa" ibiltzea.

Ta galdera au askotan egin: ¿Guk euskeraz egiten espediagu, nork egin
bear dik?

LUZEAR

Etzen dena ezezkoa izan behar eta noizbait aurkitzen zuen zerbait baiko-rra bere idazlanetan aipatzeko, hau izan zen, berak kontatzen duenez, EGIko gazteek 1935eko batzarrean izandako, be-rra poztu zuen, jarduera. Dena EUSKERAZ haritu omen ziran, inork erdera erabili gabe.

Baina horrek etzuen esan nahi denak euskal-dunak zirenik baizik, euskera etzekitenak ixilik egon zirela euskerari errespetua adieraziz.

Berak hauek zoriondu zituen, ondo iruditu zitzaion hauen egoera "bi-lera hortan" baina hu-rrengo urtean berdin egin behar izaten badu-te, orduan ez dituela zo-riorionduko esaten die, euskera ikasten ez direla saiatu esan nahiko lukela eta etzutela beren egin-beharrak gaintu euskera ikasiaz.

[Aurkibidea](#)

EUSKAL IRRATIA 1932-1935

1932 | 2012
Euskara hegaz:
Euskal irratia
80 urte

Euskal Irratsaioaren sortzaileak gogoan:
Joseba Zubimendi, Ander Arzelus
eta Amale Arzelus

KOLDO ORDOZGOITI JUANENEA
INAZIO MUJICA IRAOLA
ELIXABETE GARMENDIA LASA

Zuzendaria:
KOLDO ORDOZGOITI JUANENEA



Bai, irakurleak, gizarte ontan bertan baztertuta, zokoratuta aurkitu genduan izkuntz maitagarria, aideko erregea, arranoaren antzera, baña zer diot arranoaren antzera! Arranoa baño erosoago, arranoa baño kementsuago egaz dabilkigu.

Itxaso zabala txikia da beretzat, etxeorma eta mendirik aundienak alde batetik bestera igarotzen ditu, argi izpia leiar batetik sartzen dan errextasunaz; une berean eun, berreun, [1000] anei, amar edo eun [mila] anei tokitan arkitzen da; ez dago beretzat mugarik, erbestera sartzen da an dauden euskaldunei atsegin malakoak ixuri erazi ta arrotzei bizi dala ta gero ta kementsuago adieraztera.

Bat edo batek galdetu du onuzkero, baña nola dabil ba gure euskera egaz? Nola? Emen aurrean daukaten tresnaxoa zure aurrean bazeneuka etzenuke ori galdetuko. "Itz egin beti euskeraz" dio oraintxe abost ezagun batek: hamaika euskaldunek entzungo zuan abesti auxe; guztiak entzungor egingo ote diote ba? Ez degu uste. "Pernando Amezketarren ateraldiak" Eskoziatik Marrukoseraño entzun dituzte. "Ator mutil" eta "Jituak" abestalde goxoki abestuta Madrid eta Parisen entzun dira.

Radio Donostia irratizkin bikainari zor dizkiogu euskera zabalkunde ta garaipen abek. Radio Donostia dala ta dabil gure euskera kuttuna egaz. Radio Donostia dala ta jakingo dute erri asko ta askotan euskera badala.

Irratientzule (radioentzule) euskaltzaleak gure eskuetan dago euskera zabalkunde orren jarraipena. Illean onenbesteko bat ematen badegu zer edo zer eskatzeko era izango bai degu ba! Lagun dezaigun "Radio Donostiari" ta euskel abesti, eresi eta euskera bera entzun eraziko ditugu.

Euskal irratiaeren eragileak

Euskarazko irratigintzaren haztapenez hitz egiteko Aitzol, Lizardi, Lauaxeta, Joseba Zubimendi eta Ander Arzelus aipatu behar ditugu derrigorrez. Euskarazko egunkaria zuten amets orduko euskaltzaleak, Lizardi buru. Ametsa, jakina den moduan, 1937 arte ez zuten lortu, gerran, Eguna egunkariarekin. Irratsaioarena lehentxeago lortu zuten.

Ander Arzelus Luzear

Bada artikulua bat Luzearrena, 1931ko irailean **El Pueblo Vascon** argitaratutakoa, urte haietako euskaltzaletasunaren egitekoa laburtzen duena. Izenburu adierazgarriagorik nekez aurkitu:

"**IRUDIPEN ZOROAK**".

"*Antzokia! (Teatroa). Irudibiltegia!! (Zinea). Irratizkiña!!! (Radioa). A zer iru lagun, gure zabalkunderako! Ta irurok, gure deiaren zai-zai bezela dauzkagunak. Jakiña, gauza guzitarako bezela, diru apur bat bear. Ta diru apur ori, duanaren eskutatik ezpadator...*".

Hiru zutabe horiek ikusten ditu beharrezkoen, egunkariarenaz gain, euskaltzaletasuna zabaltzeko. Antzerkian aurrera egin zuten, eta ez gutxi. Zineman huts egin zuten, zezakeenak ez baitzuen eskurik zabaldu, baina irratigintzan, behintzat, lortu zuten "irudipen zoro" hori aurrera ateratzea. Astean behingo saio bat lortu baitzuten euskara hutsez egina, 1932tik aurrera, Donostiako *Unión Radion*. Arduradunak, Joseba Zubimendi eta Ander Arzelus "Luzear".¹³

Irratizkiña!!! (Radioa)

1932 urtean martxoak 2 an, Joxe Zubimendi idazle eta poeta eta Ander Arzelus –Txomin Olano pianojole "inprobisatzailearen" laguntzarekin– euskal irratiaeren historiaren lehen kazetariak bilakatu ziren. Asteazkenero, arratsaldeko 8,30etatik 9,30ak arte, *Radio San Sebastián* izan aurretik *Unión Radio* zen emisoraren mikrofonoen aurrera euskal bertsoak, abesbatzak, hizlariak, musikariak etabar eraman behar zituzten.

Bi urtetan, Ander Arzelusek eta Joxe Zubimendik ehun euskal irratsaio prestatu zituzten. Luzearren kasuan, kazetariak Amaletxo bere alaba ere *speaker* edo esatari lanetara jarri zuen, mikrofonoen aurrean, martxoaren 16an, honela ba lehenengo euskalemakume "speaker" eta irratiantzezlea izan zen.

[Aurkibidea](#)

¹³ Inazio Mujika Iraolak «Luzear» liburuan

Berak idazten zituen gero Amalek irakurri eta antzestuko zituen lanak, bertan emandako lanetako bat «Neskamearen marmarrak» izan zan.

Irratian eginiko lana hain izan zen arrakastatsua non, 1934 urteko urtarrilaren 28an, bi ordu luze iraun zuen egundoko euskal jaialdia antolatu zuten Donostiako Kursaal ean euskal irratsaioen ehungarren saioa ospa-tzeko.

Honela dio Javier Díaz Nocik:

Radio San Sebastián-ek euskarazko irratsaioak emititzen jarraitu zuen. Agian gogoratuen Argian idatzi ohi zuten Andres Arzelus Luzearek¹⁵ eta Jose Zubimendik 1932.etik egiteari ekin ziotena dugu¹⁶. Astero aideratzen zen programa hura. 1934.eko urtarrilean ehungarren irratsaioa iritsi ziren. Ehungarren programa berezia izan zen:

Ona euskararen aldeko lan eder bat: irratsaioak (...). Bi gizon leyatu dira zein baño zein geyago euskal irratsaio oyekek bear duten aunditasuna izan dezaten. Artzelus'tar Ander 'Luzeare' eta Zubimendi'tar Joseba ixilpeko lana izanda bi euskeltzale jator oyena, baño geyenetan gertatzen dan bezela ixilpekoa izan arren zenbaiten lan zaratatsu ta agerrtu nayeko baño garrantzitsuagoa izan da. Ez degu iñoiz neurtuko euskal-irratsaio orren bidez Luzeare eta Zubimendi'k euskerari egiten dien ona (...). Eta astean beingo irratsaioekin eungarreneña iritxi dira. Eungarren ori ez dute ordea nolanaikoa egin nai, ezta edozein garaitan ere. Igandean egingo dute eta bi orduko iraupena izango du: ordubietan asi ta 4'etan amaitu. Egitaraua osatzeko gayik ederrenetakoak dituzte (...)¹⁷.

Egitaraua ere ezagutzen dugu. Honako hau izan zen:

1'gn. 'Jaiki jaiki' bost abotsetara Eusko Abesbatzak.- Olaizola. 2'gn. Agurra. Ernandorena'k. 3'gn. 'Atzo tun-tun' 6 abotsetara Eusko Abesbatzak.- Ugarte. 4'gn. 'Lenengotxuori' 6 abotsetara Eusko Abesbatzak.-Ugarte. 5'gn. 'Urrundik' 6 abotsetara Eusko Abesbatzak.- Almandor. 6'gn. 'Txuriak eta beltz beltzak' 6 abotsetara Eusko Abesbatzak.- Ugarte. 7'gn. 'Bigarren kalez-kale' Eusko Abesbatzak, Errenderiko txistulariakin batera.- Sorozabal. 8'gn. Egileor'ek tartetxo bat. 9'gn. 'Kontrapasa' Errenderiko txistulariak.- Intxausti. 10'gn. Ezeiza'k Eusko Abesti bat. 11'gn. 'Triki-tia' Altuna pilarminka jotzalleak. 12'gn. 'Maitena'ren zati bat Agirretxe ta Salgero'k. 13'gn. 'Bertso berriak' Basarri'k. 14'gn. 'Iriyarena' Errenderiko txistulariak. 15'gn. 'Otseña zera' Zabalbeaskoa'k. 16'gn. 'Kale-jira' Altuna'k. 17'gn. Arantxa Barrena'k olerki esatea. 19'gn. [Ez dago 18.nik] 'Ramuntxo' Orquesta Filarmonika'k. 20'gn. 'Suite vasca' (Iru zati) Orquesta Filarmonika'k.- A. Otaño. 21'gn. 'Txanton Piperri'ren zati bat Orquesta Filarmonica ta Eusko Abesbatzak batera. 22'gn. 'Agur Yaunak' Eusko Abesbatzak. 23'gn. 'Eusko Abendearen ereserkia' Eusko Abesbatzak¹⁸.

Irratsaio berezi hura Kursaal antzokitik emititu zen. Dirudienez, Arzelusek eta Zubimendik programa hura pezeta bat ere kobratu gabe egiten zuten. Horregatik, Euzko Gaztediak eta Euzko Abesbatzak bultzatutako ekintzaren bidez "irrat-entzuki bana emango zaye arpide bidez osatuko da diruarekin erosi-ta"¹⁹. Luzeare eta Zubimendi "amaikatxu lan eder egin dabe (...) Donostia'ko irratzayoek bittarrez euzkerearen alde, euzko-abesti ta euzko-eresi alde", zeren eta "eurak izan dozak euzko-irratzayo gustijak antolatu dabezanak"¹⁴

[Aurkibidea](#)

¹⁴ JAVIER DÍAZ NOCI: Euskara irratian: Gerra aurreko lehenengo irratsak



**LXVIII GARREN
IRRATSAIOA
HERNANIARREN
GAIN.** Onela
ematen du el Dían
egun hortako
irratsaioaren
egitarauaren berri.

**Eungaren euskal-iratsayo ondoren
Lana egileen duanak sarriya bear du**

Shepera aldezko lanetan ibiltzen geroak geyentzen beuzatit utsean ibili bear izaten degu. Zerbait lan utsean egin dituzte-
nak dira. Hoztik beingoak eta ez-
lara beartzen ez dituzteak.
Zerbaitetara beartzen auzen lanak
odea ordainduak bear dute izan.
Ez da ordea euskera aldez diardun
tenar, eskutien dirua geyezit ibiltzen
larri-iarriaz balirik.
Eta zerbaitetara beartzen duan lanak
ordaindua izan bear balake ere

donostiar euskaltzale bikaiak beren
lan beharretan ordainiz ez dute ezer
erri. Eta, ta au okerrera, euskaltzale-
ekin arte ezere eman ez deguok
ezekin lagundu ez deguok, eman
dezarun gaur zerbait, lagundu deza-
gun gaur zerbaitekin.

Fuskaltzale izeneko asko gera. Eus-
kaltzale bende, euskera aldezto lan-
guztiak postu bear gaituz. Ez orri ba-
karrik. Fuskera eufeko lan euztari,
lagundu bear ditugu. Eta guk orain-
artekoan euskal-irratsaioari lagundu

guztuzen-on alaba zoragarri Ama-
leko deusak onoko au. Irratituzte-
ak maite dute. Gaitzen izan azen ga-
tza ta piparra berekin ditu.

le guzien etikarrena ere.
Oyen lana gaitzetel edo oztasun
aundiz arri duteen bal eta bi baño
guztuzen esagutzen ditugu beintak.
Euskaltzale izenekoak gaitzen.
Zer aldia izenetik izanera.
Ez dutela beren lanaren ordain-
zaririk jaso genion. Jaotzeko lekuan
eman beartzen arkitu espadira ge-
ro.

Euskal irratsaioak jatorrak izateko
sayatu diranak bedira. Euskal-irra-
tsaio aldezto alde al-dutemian sayatu dira-

Ona emen Zubimendi rektu batera
euskal irratsaioak antolatzeko ardura
duna. Artzelustar Ander Aluzear
deuske

es da alderiatzen. Zefien errotu?
Zerbait euzaldimen errot. Euskal-
dun geroak errot. Ta au urregio
Zuak bataan aseritu geroak
Gaitzen errot. Ta au urregio
Irratsaioaren antolatzeko lana zerbait-
etara ez eskatolara, ero beart-
zen duan lana da.
Eta zuzenaz eta Zubimendi, bi-
tasayo alde al-dutemian sayatu dira-

Zubimendi'tar Jose' deuske onoko
au. Euskal-irratsaioaren laguntzale bi-
kain eta irratitako zintzoa. Lekurik
ez deuskeo azaldu bear genituzen
beste bi argazki azaldu gabe usien
ditugu. Troinin Oiaro piano-jotze-
learen ta Lizarraga abesdariaren.
Zintzo ta zur jokatu bait-dute auzk
ere

es diogunok, surruenteak lagundu
dezaragun. Era eskotara lagundu ge-
nezake. Euskal irratsaio batzuek gu-

euskal - o

Euskal irratsaioak

LXVIII GARREN, HERNANIARREN GAIN

Da da gaur goizekoa, errandaren
bebetasuna. Onel erakututa gaitera
eguzi irrateloren batuetan. Gaur ere
stiro emen ditugu beren euskaltzale-
dunak erakotita.

Tristebiariez jakarazite, nola ez izan
dari erikoak izanik? Oek euskal or-
an osatzeko lain jotzeko asmotan
aloz noski.

Galdos, abotzoki jatorak, Ipafagife-
ren "Nere alofer" abestuko digu. Len-
e abegin biaz entzuna degu gaste-
ren abotza. Benetan baita zolla.

Mutiko botek, au ere Galdos abi-
nez, Azkueren "Kalea gora-bera"
Ipafagife'ren "Gilara sartze b"
bestuko ditu. Abotzoren politzeta-
a degu mutiko auz.

Onel bere laguntzalekin batera
(nork ez du errandari mutiko taldea-
ren entzuterik?) iru abesti polit en-
tzunagariko dirikgu: A Donostiarren
"Menditar baten kantua", Dadi's'ren
"Gona gofia" ta Urtegarren "Gabe-
ko izar", abote bakar, bi ta iru abots-
etara

Askenik, Galdos abotzozilla, Orbezo-
no abospitilla ta Toledo abospere-
Napafō ta Bizkal ondoren, Gipuzkoā,
"Alxerita" Eigoibar' tik. "Nere iant-
giak galazten dit gaurko batzar ortan
aurkitzea, bafia or artzen dituzten
ERABAKIAK neñe gogoknak dirala
gomutau".

Ta gero etekadan:

Bigo'ta "Zertzetā": "Gorputzez urñ
naz, bafia gogoz zuekin ballan dagigun
lanlan, Abefi aldez, Zenen ERABAKI
ZAI Agindu Jelpian pozak jaraitzezo"

Bilbao'tik "Txitxo". "Gaur Arnope
ren omena dan eskero ez det zueri zer
bait idatz gabe gelditu izan nai. Gu-
txi da, bafia biatzen diruet amar laver
leko bere aldez. Neure ototzak gaur
"Arnope" zanaren aldez izango dira".
(Gogoa ez ezik, zerbait geixiago ere
bitaidu du beraz "Txitxo" jatofak).

Eigoibar' tik "Mirentxu": "G. b. Ar-
nope" ren gogua, Mutriku bihū serā-
ten anal afeba guztiot agur mailtekor
bat ta egun zorientzua igarotzin opa
diruet. Euzkerea ta Abefi aldeko AS-
MOETAN ZUEKIN naukazute. Luzes,
gaur ere soñez ufuti naukazte, bafia
biotzez ortxe zuen artian nago".

Legazpi'tik "Iñitza": "Egun aundi
onetan soñes ez bafia gogoz or nazite.
Samñi agufa "Arnope" ren senditari".

Getari'tik Burgafā: "Getari'ko eus-
kal idazleak biotzez batuak daukazute
suen BATZARALDIAN".

Segura' tik "Oñara": "Gogozko sai-
dan batzar ortarizterik ez dedalarik,
"Arnope" ren omenaldian ototzez zue
taraben naiz anal mailtasunenko eus-
kal idazle batzara opa diruetelarik".

Lasarte'tik "A Bi": "Gogoz or da-
zuten agerkalizat".

Bermeo'tik, "Urkiñi". Gaubeka, Erauz-
kin ta Bustintza: "Arnope" ren gomut-
ter Mutriku batuten sartien idazle ta
euzkeltzale guztiot gure agufa iuekaz
dago."

Askotik'tik "Aizondo": "Amaltasunen

ko batzar ortan zuen artian ez naitzen
afen, gogoz zuekin naukazute".

Pasai Donibane'tik "Ikur": "Zue-
ganazteko asmoa nuan bafia zeregin
batet galerazi dit. Agur mutrikoar eta
gañantzeko anal afeba arñiak. Zuekin
naiz gogoz eta ototzez".

Legazpi'tik "Olari": "Maite noan
Arnope", maite det eskera, Gaurko
anal idakoaren omen ogunak bekar
bioteko euzkeltzen berplite oca. Gaur
ta beti zuekin biotzez".

Andoain' dik "Patxi": "Arnope" za-
naren omenlan zuekin oroiñes".

Bilabona'tik "Zubi ondo": "Arnope"
oroiz batzarutako anal afebat agur
tekoñā".

Mendaro'tik "Kalku": "Gora Euskal
idazle Batza. Azkenengo orduban era-
gopen bat izan detalako nai izan sen
tamalez, ezin eidu. Bafia biotzez zuekin
naukazute. Artu idazle bitre omen eb-
sarkada mailtekoñena".

Iruñe'tik "Arantza". Urmeneta, 33-
kafet ta Maite: "Otoite tagigu Arnope
ren aite ta zuekin naukazute".

Isasondo'tik "Murumendi" ta "Xiri-
ka": "Arnope ren omenez egiten diru-
zuten jaitzara ezin fun ufuti dagolako
bafia biotzez zuekin".

Tofoa' tik "Ayarbe": "Nere agufa
or bildu dira niderleentzako".

Aretxabaleta'tik "Alberdi": "Soñes
ezin izan aften gogoz zuekin naiz. Ar-
nope zana ototzetan aufian det".

Zarauñ' tik Zinkunegi: "Soñes ezin,
bafia gogoz zuekin Arnope zintzaren
omenez".

Debatik "Tene": "Beak lotu nau
gaur omen, bafia nere gogoa zuekin da-
te Arnope zanaren omen aidan".

Zubieta' tik "Aingeru": "Soñes ezin
bafia gogoz zuekin, zuen irifalak ON-
TZAT ARTURIK Euskadi euzkeltze-
kin".

Arpeti' tik "Txalintxo" ta "Luñti-
txiki": Juan ezirik biotzez zuekin
mailtasute".

Ogeitamaru "gogonts" ere gurekin
lenge ogeitaezortziokkin ziran beraz
Mutriku ko Batzarfian. Irurogeitamaru
lagun eskero ituruzko Batza sortu di-
leke beraz.

Bafia, sñāna, uste baño lusego jo
dit eta ihor aspertu baño len txi' na-
din.

Lozeaz

Emen dion bezala, Batzarrean 38 idazle izan zirek "soñes" baina beste 33 idazleek berak Batzarrean ez egun arren bertako erabakiak onartuko zituztela zehazki eskutitez adierazi zuten, 71 idazle izan zirela Batzarrean esan ditakela dio berak besteak beste.

Aurkibidea

1930-1948. POLITIKARIA - EAJ

Ander Arzelusen aita, Andrés Eufemiano Arcelus Artola, Sabino Aranaren aurren-aurrenetako jarraitzaileetakoa izan zen Donostian. Donostiako abertzaleei "bizkaitarrak" deitzen zieten garaian hain zuzen ere. Anderrek, beraz, etxetik jaso zuen politikarako zaletasuna.

1930ean eman zuen izena EAJ alderdian. Hain zuzen ere, diktadura osoan barrena bananduta egon ziren alderdiko bi sektoreak, "Comunión" eta "Aberri", atzera bildu ziren urtean.



Afiliatu zenean, ordea, konpromezu osoz, buru-belarri, egin zuen, eta, 1935ean, *Gipuzku Buru Batzako* aukeratu zuten Zumarragan. Ordurako, Luzear euskal kazetari oso ezaguna zen eta euskararen alde ari ziren guztiek bazekiten ez ziola Andresek aberriaren eta gure hizkuntzaren alde eskatutako lanari sekulan ere muzin egingo.²⁶

Alderdiari jarraituko zuen bere azken egunerarte. Kartzelako garaian bertako arduradunetako bat ere izan zan. Kartzelatik irtenda Donostian ere Alderdiko arduraduna izanten jarraitu zuen eta azken garaian, Iparraldeko erbestean, EBBko Lehendakari ordea izatera ere iritxi zen.

1936go IRAILA - EUSKAL ESTATUTUA

1936ko irailean, Donostia erortzeaz, Jose Antonio Agirre, Franzisko Basterretxea eta Juan Ajuriagerrarekin batera, hegazkina hartu eta Madrilera egin zuen txango, bidez esanda, nahikoa bidaia arriskutsua, Burgos gainetik, matxinatuen gainetik pasatu behar zutelako.

Madrilen, Largo Caballeroren gobernuarekin negoziatu zuten Euskal Estatutua (edo "Araudia", garai hartako hainbat idazlek euskaraz esaten zioten bezala).



1936ko urriaren 7an eratu zen Eusko Jaurlaritza, Gernikan. Argazkian Jose Antonio Agirrereren zina. Ander bertan zegoen.

GU DA GARAIA, DONOSTIA, ZARAUTZ, LEKEITIO, BILBO.

Garai hura bere alaba Amalek, bere aitari buruzko liburuxkan kontatzen duenarekin jarraituko det:

EUZKADI BIOTZ ETA EKINTZETAN.

Euzkeraren alde, guda aurretik egindako lanak aurkeztu dizkizuet, eta orain Euzkadi'ren alde egindakoak adieraziko ditut.

Euzko Alderdi Jeltzalea'ko, Gipuzku Buru Batzar'eko kidea izan zan. Garai artan buru izateak, betebearrak eta buruausteak besterik ez zitun ematen, ezaizuten agintea ez diru, ez ospeagatik artzen, Aberriaren alde lan egiteko baizik.

Buruauzte eta betehear auek areagotu egin ziran 1936'ngo. Uztailak 18'tik aurrera, au da, guda asi ondoren.

Asieran guztia naaspilla izugarria zan eta erabakirik zallenetako bat, zein bide artu izan zan. Zeaztasun aundirik ezin eman ordea, garai artan aurra besterik ez bait nintzan, baña, ori bai, aitaren urduria gogoan det. Egun latz aiek ezin aaztu!

"Requete"ak Donosti'n iraillan sartu ziran. Auek gañean genitunean, amak etzekin aita nun zan, baña mezu bat iritxi zitzaigun Alderdikideengandik; Zarautz'a joan gintezela. An, sendikoak genitun eta beraiengana joan giñan, baña egun batzuetan aitaren berririk ez genun izan. Alako batean, agertu zanean, Madrid'en izan zala jakin genun, Agirre'tar Jose Antonio, Ajuriagerra'tar Juan eta Basterreixea'tar Francisco'rekin, "Estatutoa"ri buruzko arazoa konpontzen. Ulergarria egin zitzaigun orduan aitaren berri ez izana, oso bidai arriskutsua bait zan garai artako egazkiñetan, Burgos eta inguruak Franco'ren mendean zeudela, Madrid'era joan-etorria egitea.

Andik aurrera gure Bilbao'rako ibillaldia aitarekin egin genun. Zarautz'tik Deba'ra, an egun batzuk eman eta Lekeitio'ra, gero Gernika'ra eta andik Bilbao'ra. Bertan zazpi illabete egin genitun. Aldi artan gure aitak egin zitun lanak ezin ditut zeaztu, baña oso gutxi ikusten genula baieztatu dezaket. Askotan gañean izan genitun "faxisten" egazkiñak, beren "opariekin". Orduan etxe-azpian sartzen giñan obe bearrez, bein baño geiagotan leer-galluak etxe gañera erori eta azpian ziranak zapalduta gelditu arren.

Bilbao'n zazpi illabete egin ondoren eta "faxistak" bertaratu ziranean, ama eta lau anai-arrebek "La Habana" itsasontzian Frantzi'rako bidea artu genun, gure aita Bilbao'n utzita.

Etsaiak Bilbao'n sartuko zirala argi zanean, guretarrak iges egin bear izan zuten eta Santander aldera jo. Gure guda -Euzkadi galduta-bukatu zala ta, Santoña edo Laredo'tik itxasontzitan aalik eta geienak erbestera bialtzeko aalegiña egin zuten, baña asko izaki eta guztiak ezin joan. Gudariekin, Euzko Alderdi Jeltzale'ko buruak ziran. Auek, naiz eta zigor aundiena jasotzeko arriskua izan, gudari guztiak alde egin aal izan arte beretariko bi gelditzea erabaki zuten. Zozketa egin eta gure aita izan zan auetako bat.

Garai ontan, gure ibillerak garrantzi aundirik ez ba-du ere, aurrera dijoan bizi-kondaira onen gora-beerak uler ditzazuen, al dedan era motzenez kontatuko dizkizuet:

Bilbao'tik atera giñanean, Le Havre'ra joan giñan eta andik "beste aldera" (Ipar-Euzkadi'ra) etorri giñan. Leenengo Kanbo'n eman genitun egun batzuek; lau bat egun Urukurai erri txiki eta atsegin batean, eta andik Azkain'a, bertan geldituz Donosti'ra etorri arte. Azkain'en giñanean, aitaren adiskide eta Alderdikide Bereziartua'tar Ander'en emazte, Eginotar Carmen'ekin bizi giñan. Biak etxera etorriko zirala ta, nola geldituko ez giñan ba, Bereziartua'tar Ander bakarrik iritxi zanean! Guztiontzat oso gogorra izan zan, gure amarentzat bereziki...

GU DA GARAIA BILBON

Radio Bilbaon Euzkel Orduba

1937ko martxoan *Radio Bilbaon Euzkel Orduba* izeneko irratsaioa hasi ziren emititzen, astean behin, Donostian gerra aurretik bi urtez asteazkenero egiten zen irratsaioaren antzera.

Luzearren esperientzia oso baliagarria izan zitzairen Bilbon *Euzkel Orduba* antolatatu zutenei. Are gehiago: Bilbon eginiko *Ordu* horietako batean Amaletxo Arzelus *speaker*-ak bere aitaren *Neskamearen marmarrak* monologia irakurri zuen eta, ondoren, *Garo usaina* izeneko obratxoa, oraingoan Itziar Arzelus bere ahizparekin batera.²⁶

"EGUNA" aurreneko egunkaria

1937ko urtarrilean sortu zen euskara hutsezko aurreneko egunkaria: *Eguna*. Gerra garaian bihurtu zen paper hainbeste aldiz erabilitako ametsa. Sei hilabete, ekaina arte, iraun zuen amets horrek, amesgaizto bihurtu aurretik.



Eguna egunerokoan kazetari donostiarrak izenpetutako idazki bakarra aurkitu badugu ere, lan zabala egin zuen Andres Arzelusek hain nahitaezkoa ikusten zuen euskal egunkarian (Luzearrek izenpetutako lantxo bakar horrek oso izenburu esanguratsua du: *Gorrotorik ez!*, berau izan baitzen beti euskal kazetari honen etengabeko leloa).

Euskal Gobernuaren boletina

Egunan lan egiteaz gain, Andres Arzelusek Euskal Gobernuaren boletina euskarara itzultzen zuen, eta 1937an frankistak Bilbon sartu arte Bizkaiko hiriburuan euskararen alde egin ziren ekitaldi askotan parte hartu zuen.²⁶

bilatu boletin haietako bat, FSAn

[Aurkibidea](#)

²⁶ XABIER ARZELUS DOMINGUEZ ek «BIDEGILEAK»en

1936-37 BILBON

Zenbait ekimenetan present

1937ko otsailaren 12an Aranzadi'tar Engartzi *Kizkitza* hil zen, eta berehala bere idazlan guztiak argitaratzeko diru-biltze publikoa antolatu zuen *Egunak*, eta egunkariak argitaratutako diru-emaileen zerrendetan Luzear azaltzen da. Garai hartako 10 pezeta eman zituen, hain zuzen ere.

Bilbon Euskal Idazleen aldeko elizkizunak eta omenaldia egin zirenean, aipatu egunkariak Luzearren parte hartzea seinalatzen du, eta Bilbon eginiko VI. *Aberri Egunean* ere Andres Arzelus Begoñako elizkizunetan present egon zen, Ajuriagerra eta EBBko beste burukide batzuekin batera.

Aipatu euskal idazleen aldeko omenaldiak bazuen momentu hartan oso eduki handia, asko baitziren dagoeneko 1937an frankistek hildako euskal idazleak, Ariztimuño *Aitzol* hauetako bat zelarik. Beste idazle asko, gainera, armak hartuta, kartzelatuta, zigortuta edo eta zapalduta bizi zen. Donostian, esaterako, herriak hain maite zuen 70 urteko Toribio Alzaga bera atxilotu zuten faxistek, hiriburuan sartu bezain agudo.²⁷



Sendi asoa Bilbon banandu aurretik 1937an

1937an, Bilbo Frankisten menpe erortzar zela, emaztea 4 seme-alabekin "La Habana" itxasontziaz iparralderuntz joan ziren, lehenbizi Kanbon egun batzuek, Urukurun eta azkenik Askainen bizi izan ziren erbestean 1940 arte, eta Ander gudari eta beste agintari batzuekin Santander aldera joan zen.



Bere sendia iparraldean 1940 arte



[Aurkibidea](#)

²⁷ XABIER ARZELUS DOMINGUEZ ek «BIDEGILEAK»en

1937/1943: DUESO-LARRINAGA-BURGOS

1937/08/24 *Santoñako Hitzarmenaren* ondorioz gudariek armak utzi behar izan zituztenean, Ander Arzelusek uko egin zion pertsonalki ihes egiteko izan zuen aukerari eta, EBBko beste burukide batzuekin batera (Alberdi, Unzeta, Luki Artetxe, Solaun eta Juan Ajuriaguerra, hauen artean) preso eginiko milaka gudarirekin gelditu zen.

Santoñan preso hartu, eta Duesora eraman zuten. Italiarren esku lehenbizi, frankisten atzaparretan gero. Epaitu eta heriotza zigorra ezarri zioten.

El Dueson preso fusilaketak hasi zirenean, Ajuriagerrak gose grebari ekin zion, protesta egiteko, eta bere horretan segi zuen, preso zeuden EBBko bere kideek protestari uzteko agindu zioten arte. Honela zioen aipatu aginte-notak:

«Reunidos en El Dueso hoy nueve de Septiembre, Arzeluz, Markiegi, Alberdi, Unzeta, Artetxe y Solaun, acuerdan comunicar a Ajuriaguerra que en evitación de un conflicto mayor que pudiera resultar más perjudicial para todos, debe desde este momento deponer su actitud y empezar de nuevo a alimentarse.

El Dueso, 9 de septiembre de 1937».

Egun batzuk geroago, aipatu nota honen sinatzaileetako bat -Debako alkate izana zen Florentzio Markiegi, hain zuzen ere- fusilatu eta beste sinatzaile guztiak heriotza zigorrera kondenatu zituzten.

Ondoren, Luzear EBBko kide zenez, beste ziega edo zelda batera eraman zuten -hain zuzen ere 21. zenbakiko ziegara-, bertan hertsu baitzituzten frankistek EAJko buru nagusiak.

Luzearrek, bere aldetik, El Duesora heldu bezain agudo gerrak sakabanatutako beste hiru anai gudariak momentu laburrez aurkitzeko aukera izan zuen, gerra hasi zeneko lehen aldiz. Andres, Luis, Sabin eta Josebaren elkarren arteko besarkadak ez zituzten lau anaiok bizitza osoan ahaztuko.²²

Duesotik Larrinagara itsasontzi baten sotoan sartuta, 1937ko azaroan, San Andres egunean hain zuzen.


Euskal presoek Santoñako El Dueson eta, ondoren, Bilboko Larrinagan bizi izan zituzten garai latzenak, gau erdian presoak ziegetatik dozenaka irtenarazi eta fusilatzeari ekin baitzioten frankistek. Ez zituen ordea heriotza giro honek euskal presoak kokildu. Larrinagako kartzelan, **Espetxean** izeneko aldizkaria argitaratzeari ekin zioten Luzearrek eta honen kartzelakideek. Aldizkaria EAJk kartzelan izan zuen argitarapena bilakatu zen. Eskuz oso txukun idatzitako aldizkaria eskuz esku pasatzen zuten, eta presoek izpiritua indartzeko artikulua idazten zituzten. Ez zen gainera aldizkarian kantarik falta. Aldizkari honen argitaratzea Burgoseko Presondegi Zentralean segi zuten Luzearrek eta honen lagunek, oraingoan kartzelan zegoen inprentagailuaz ezkutuki baliatuz.

Aldizkariak presoek berriak eta hauen idazlanak argitaratzen zituen. Kartzelakideen animoak berotzeko edo, Luzearrek eta Salvador de Rada musikari irundarrak himno bat konposatu eta argitaratu zuten **Espetxean** aldizkarian.²⁸



Burgosko espetxean, Rezola, Ajuriaguerra, Arzelus, Artetxe, Unzeta

²⁸ XABIER ARZELUS DOMINGUEZ ek «BIDEGILEAK»en



DUESOKO ESPETXERATUEN ERESERKIAK-1937 «Luzear eta Errada egilleak»

DUESOKO ESPETXERATUEN ERESERKIAK 1937KO Urrillan «Luzear eta Errada egilleak»

Bi ereserki egin zituen Duesoko presoak animatzeko, lehenengoa epailaren hasieran eta bigarrena urrillaren 15ean, bertan dionez Markiegi, Ibarbia eta lagunak erailtzean.

Lehenengo letra bakarrik daukagu baina bigarrena Erradaren partiturarekin dago.

Eta Larrinagatik berehala, 1938ko uztailean, Burgosko "Prision Central"era.

Koldo Mitxelenak honela kontatzen du Luzear eta biok batera egindako bidai hura:

Sekulan ez du ahaztuko Burgosko espetxera zihoazela, tren geltokitik abiatu eta kartzelaraino herri barrutik nola eraman zituzten preso guztiak binaka elkarri lotuak, eta nola Burgosko jendeak iraindu, karkaxa bota eta jo arterainoko guztiak egin zizkieten. Anderri txapela bota zioten esku-ukaldi batez, eta, ez makurtzeagatik, bertan utzi zuen.²⁹

Andresek gerra aurretik antzezlanak idatzi bazituen, gauza bera egin zuen Burgosko kartzelan eman zituen bost urteetan. Bigarren garai honetan, halere, bere antzezlanak haurrentzat idatzi zituen, bere lau seme-alabetan pentsatuz, seguru asko.

Alde batetik, haurrentzako ipuinak idatzi –*Marrakatzarra*-ren kasuan bezala– edo itzuli zituen –*Kilkir-Abestiak* (Dickens-en *Christmas Tales* ipuinen itzulpena), *Gonagorritxo...*– eta Lucarini kartzelakide anarkistaren marrazki ederrekin osatu zituen.³⁰

Bestalde, euskara bikain menderatzen zuenez, Andres Arzelus gure hizkuntza ikasi edo landu nahi zuten kartzelakideen irakasle oso estimatua bilakatu zen presondegian. Bere ikastaroen lagungarri, euskara ikasteko metodo bat ere landu zuen kartzelan, euskara ez baizik «alemana» ikasteko zela, gartzelako zuzendaritzari esanaz.

Euskera erakusteko metodo bat baino gehiago ere egin zituen, haietako bat Amalek, bere alabak erabili izan zuen berak eldueri ematen zizkien ikastaroetan 1970tik 90ko hamarkada arte behintzat.

Jatorrizko idatzi pila bat kumuneko papeperein idatziak daude, hau zen kartzelan erabiltzen zuen papera gehiengoan ziriborroak egiteko eta gero garbira pasatzen zituen.

Amalek berak garbian jarri hoi zituen mekanografiatuta eta bere ikasleek ere saiatzen ziran berdin egiten. Ziriborroez gain beste idazlan batzuek ere ba daude, euskal gramatikaz eta beste lan batzuetaz ere, adibidez lan nahiko luze bat «amar Aginduak» izendatutakoa adibidez, oraindik ez dakit zertaz edota ze idazlan motatakoa den, baina izenburuaren arabera eta bere sinismena kontuan izanda ez dut dudarik pentsatzean zertaz izango den gaia.

Lan hauek guztiak jarraian, banan banan, zehazten ditut.

[Aurkibidea](#)

²⁹ Inazio Mujika Iraolak «Luzear» liburuan

³⁰ XABIER ARZELUS DOMINGUEZ ek «BIDEGILEAK»en

ABESTIAK

Baditugu 4 abesti partitura ta guzti, Anderrek eta beste bi presoren artean egiñak, bestearen abizenak ditut izena ezik, hauek dira F. Martiarena eta E. Érazkin.


Izenburuak guztiz adierazgarriak dira, MAITETXO, ¡ENE ABERÍA!, NERE EMAZTEARI eta MAITASUNA.

Hemen jartzen ditut lantxo txukun hauek, benetan ikusgarriak dirala iruditzen zaidalako:




KILKIR ABESTIA




KIRKIL ABESTIA, eresidun antzerkia, Dickensen *The Cricket on the Hearth* ipuina oinarri hartuta egokitua; musika, beste preso batek, Bilbotar Franzisko Bengoak, jarri zion.




Jatorrizko zirriborroa kumuneko paperean



Jatorrizko liburuxka eskuz idatzia Burgosko espetxean.



Gonagorritxo eta **Marraktxarra**, haur antzerkiak ere espetxean idatziak dira. Azken hiru hauek Sabino Arana Elkargoak argitaratu zituen *Askatasun Ipuinak* izenburupean, 1998an. Hauek "Lukarini" bilbotar margolari eta eskultorearen irudiekin apainduak zeuden, hau ere preso zegoen Burgosen, bera anarkista zen baina Anderek naiz eta askotan «integristatzat» artzen dugun, denokin harremanak zituela adierzaten digu, ez bere ideak zituztenarekin bakarrik, eta edizio hontan horrela agertzen dira irudi eta gutzi.




Gonagorritxo jatorrizkoa




Gonagorritxo FSAk argitaratuta Lukariniaren irudiarekin

Naiz eta metodoaren jatorrizko ikasgai gehienak eduki, batzuek falta dira baina bere alaba Amalek bere irakasketarako urte askotan erabili izan zituenez, haiek garbira pasata, ba ditugu gehienak naiz eta bikoiztuak izan. Amalek erabiltzen zitunean bere ikasleek bikoizten zituzten ikasgaiak, askotan eskuz eta beste batzuetan makinarekin ere.



Jatorrizkoa




Amalek bikoiztuta

Abestiak ere itzuli ohi izan zituen, naiz eta itzulpena ez ezik, berak nahi izan zuen letra jarri zion "Chopin" en Tristesse (Tristeza de amor) doinuari. "ITUN" izenburua jarri zion eta honela zion:

Abeñi polit berdin gabea
 Azkatasun iturri gardena
 lotuta zakust
 ¡Eñi azkezaleak garaile!
 ¡¡Taalare zu lotuta!!
 Amatxo maite atsekabea,
 ona zuretzat biotz nerea:
 ar ezazu
 ta zure zoria izanik
 gaurtik auñera
 zurekin izango naiz azke...
 edo guzia ametsa balitz
 zurekin, ama,
 ilko naiz ni...
 zurekin il...

Emazte kuttun biotzekoa,
 nere lagun izateko autua,
 bakarrik zaude
 ¡Zurekin egoteko zorutzen!
 ¡¡Taalare zu bakarrik!!
 Emaztetxorik maitagarina
 Ez negarrik, laster zurekin naiz:
 baña ez nolana:
 Etsai guziak menpetuta
 Gure abefia askatuz
 zuentzako pakearekin,
 beti aforturik esan dezazun
 ¡¡ Nere sanaña!!
 eta txikiak
 ¡¡Gure aita!!



Bere sendia eta Aberria beti zituen bere buruan eta bere lanetan agertzen dira, batez ere garai hartan, noski.

Aurkibidea

BERTSO BERRIAK KARTZELATIK JARRIAK

Naiz eta bertso hauek Luzearrenak ez izan, hemen sartzea erabaki dut nahiko bitxia delako, "Kartzelako batek", berak sinatzen duen bezala, bere epaiketari buruz egindakoa.

BERTSO BERRIAK KARTZELATIK JARRIAK

-1- Euskalerritik aparte, mila legoa bitarte, esku ta anka loturik preso, Zamoran naukate. Pentsturik amar urte bear ditudala bete, pazientzia artu bearko libre utzi arte.

-2- Naiz ta kriminal ez izan, kaiola-txorien gisan, bost gizon aundi kolpetik preso, sartu ginduezan. Baiña zergaitik izan zen nai neuke poliki esan: inuzentzian bizi diranak esnatu daitezcan.

-3- Malatzeko egun batez, ogeita amar ain suertez, gose-huelga asi genduan geure borondatez. Goitik defentsarik bapaz, gurtia zen geure kaltez, obispo ta apaz kolko aundiak lasai bizi beitez.

-4- Pentsatutako moduan, Hilboko obispaduan, sotenu baten gela zartxo bat atondu genduan. Oizirik inguruan jarri yakuzan beinguan; gure sabelak etzuan goserik sentitzen orduan.

-5- Tapel bat geunkan eginia, labufa baiña gordiña. Bertan azaltzen genduan Euskal-erriko samia. Zer sermoi ta zer dotriña, bazan zerbaitez preña. Berriro ere egingo geunke, kanpoan baiña.

-6- Iru egun ta erdira, lotuta komisarira. Ardi gaixoak bezala goaz geure iltegiara. Joten esiko bailira, bizkerrik ez erretira. Lemgo ere emondakoak ganak artu dira.

-7- Geroztik aste batera, tribunal falto batera, azaldu gihan gure krimenen kontu emotera. Villa arroxoi atera ebezan gure kaltera; amabi ta amar urtena jausi jakuzan kolpera.

-8- Tribunaleko nautia, trumoi artetik jausia; gizona ala piztia zer zan dudan gañoz ia. Eztula ta arrausia, aren zientzi gurtia. Esku onetan dago, matillak, gure justizia.

-9- Ezker eta eskubira, a zan ezpata-dirdira! Pentsa zeiteken sartu giñala sugeen kabira. Ikraz nengon begira, bost juezan arpegi. Akerrak ere aren ondoan, pizti fiñak dira.

-10- Juizio xeibre artan, poz bat nuen nere baitan; alako pizti-sailia debaide ikusta bertan. Baiña gauza batzen faltan gelditu nintzen penetan; buztanik zeuken begirteez, aztu egin yatan.

-11- Guk egingako papela, irakurri zan berela. Ba zirudien Espaila aniaz gora zetorrela. Asi zen gero fiskala. Amakortuan in sortu zan astrepala! Eskerrak bostok gibel aundi ta gorriña geunkala.

-12- Autortu nai dot ortako, abogaduak ainko saio bikainik san pedrok ere, etzula botako. Baiña gurtia zertako? (1) Itaketa jerdun, naiz zaunka asi, berdin zan arako.

-13- Agur eginiaz Burgosi, naiz ta ez asko merezi, bueltan gentozan Criado jauna gendula nagusi. Bekoitzak zazpi polizi, euren pistola ta gurtia. Bideak libre zitun orduan nai zunak igesi.

-14- Espaila bet aundia taibreakta libre zelan ez kantat? Gibraltar izan ezikan emen, ezta ezer falta. Askatasunez aparta, aundian berriz galanta. Olako Espaila bat izan bear, besterik ez da-ta.

(1)-Leku ortan bertso au palta da: Alperrik itz baterako.

-Aldeantzira.....

-16- Ppilatos eta Herodes, izan dira gure juez. Amas ta Kafas ere oraingo kontsola daitekez. Ala ere gure partez, lasai gañoz eta pakez, Askatasuna kendu daukue, baiña umorerik ez.

-17- Ona amaitu baiño len bost apaizak zeintzuk diran; bat da Gabika, urren Xaltzada, Naberan ondoren. Amuriza da laugarren. Nor falta ete da emen? Guztion buru Nikola jarri bear nuan ienen.

Kartzelako batek.


Eus-kal-e-ri-tik a-pa-ri-te - mi-lla le-go-a bi-tar-te,
 es-ku ta an-ka lo-tu-rik pre-so ia-ma-ran-neu-ka - te.
 Pen-ta-tu-rik a-mar-un-te be-ar di-tu-da - la be-te,
 Pa-zi-en-tzi-a ar-tu be-an-ko li-bre ut-zai ar - te.



1939-40 ko gabonetan eskuz eginiko "kristma" bat ere aurkitu dut, postalaren atzekoaldean eriotzera zigortuak zeudenek sinatuta dago: Axuriagea'tar Jon, (sic) Artetxe'tar Luki, Artzelus'tar Ander, Erezola'tar Joseba eta beste bat ezin irakurria.

EUSKERA IKASTEKO AKADEMIA BATERAKO IRAGARKIA

Berak erderaz idatzitako beste lantxo hau ere aurkitu dugu, IRAGARKI bat da eta bertan zera proposatzen du:



«Euskera ikasi eta 250 peseta irabazi!»

Hamaika kumuneko papereko orritxotan proposatzen du nola egin litekeen euskera ikasi eta gainera 250 peseta irabazi, ordaindutakoa berreskuratuz ikasketak burutuaz gero.

Lehenengo orritxoan honela dio:

¿Quiere usted ganar

250 pesetas?


Lea usted las condiciones en que

ACADEMIA -----

se las ofece

Beste orrietan zehazten du nola egin beharko litzaken, ikaslearen fitxa nola izango zen ere bai.


EL EUSKERA SE APRENDE




El euskera se aprende

¿no se va a aprender?

y se aprende además con facilidad.



Honela hasten da hiru orritxoko lantxo hau, bertan adierazten du umeak hitzegiten ikasten duten bezala ikasi behar dela, lehendabizi




«ulertu» behar dela eta gero, bakoitzak errepikatuz buruan sartu arte, ikasi ditekela dio.

Beno, hau baño geixehago zehazten du noski.

[Aurkibidea](#)

ESPETXEKO PLANO BAT



Edozein presoren lehenengo eginbeharretako bat kartzelatik ihatea edo, behintzat, saiatzea izaten da.

Aurkitu dudun planotxo honek, hortan saiatu zirela eta ihesteko planak ere egin izan zituztela pentsa arazten dit, naiz eta horren berririk ez dudun aurkitu oraingoz.

Fusilatu aurreko egunean José M^a de Azkarraga, Josémaría de Amadoz eta JM^a de A. k sinatutako azken borondatearekin Ajuriagerrari bidalitako gutuna. Naiz eta Luzear berarekin ez duen ezer ikusirik, baina bera ere egunero urrengoa izan zitezela pentsatuaz bizi zirenean honelakoak irakurri behar izaten zituzten. Bertan garbi ikusten da gizon haien ispiritua!

Bilbao - No-12-37.
 Sr. D. Juan de Azuriaga.

Aquí: Con la emoción intensa del condenado que vas a la muerte, he despedido en Vd. de todos los buenos patriotas y amigos. Y tras haber compuesto y embalgado, con la vista fija en Jaungoikua, como en otras, tengo que jurar para mi tranquilidad en este instante supremo que he tenido conciencia de nada ni de nada, si no de haber luchado con aplen por mi país.

Caminando a la muerte orgullosos de los mi vida por lo que he vivido; jamás creyera que Jaungoikua me hubiera reservado el gran honor de ser su elegido para morir por la patria.

Definitivo, sin desmayar, y hasta la última hora. Jaungoikua un don de firmeza y valor para morir como vpsos.

Saludos a Purpura, y a todos los amigos, "Blas" (M. de Leizaola) y todos los amigos.

Permítame a Vd. entregar para hoy lo que de mi derecho hace dos días. Solo entrego mi firma rubricada con mi sangre.

Aquí.

José de Azkarraga

Para que unos que dicen hayo una en su totalidad la carta.

de "San Gin." Mejor que yo pudiera, he de dar los apuntes de mis últimos días. Jaungoikua, la patria, la familia y los patriotas todos.

Me despidó de todos en la seguridad de encontrarnos. Que como a mí, los encuentre tal con la guerra.

Aquí.
 José María de Amadoz

A mi único amigo Fecua, que me despidió de todos los carabanas, y que el fin de la vida la sea, en mi. Es un perdón portante.

JM^a de A.

DP-15-2

NAVIDAD DEL 40

Prisión de Burgos

Europa arde. Alemania amenaza con adueñarse de ella. Nuestros ánimos están destrozados. Esto significa nuestro fin en presidio.

Nieva fuertemente. El jefe de la prisión ha pretendido que cenemos en el patio a 10º bajo cero. Las monjas han conseguido convencerle de que es una nueva injusticia y más en este día.

Disponemos de buenas provisiones y también de botellas de coñac llegadas por medios casi milagrosos e incomparables.

Son la 12. Las monjas han preparado una misa de gallo en su capillita que va a ser cantada por varios componentes del orfeón.

57

Salimos al patio. Hiela intensamente, dentro y fuera de nuestros corazones. En la capilla, mucha luz y Jesús en el pesebre.

Cantamos un villancico, otro... Perico Zabala, nuestro divo, se prepara para entonar un solo. Su cara de niño rubio se parece al que acaba de nacer. Con su voz suave, larga, cálida y seguramente con el corazón en los labios canta:

Hoy es día de alegría

y sin embargo lloro yo.

Hoy no es día de tristeza

y sin embargo lloro yo:

es que recuerdo el cuadro alegre

de mi casita todo amor.

¡Perdóname, Señor,

perdona mi dolor,

pues tengo triste el corazón!

¡Qué nos has hecho, Arcelus querido! ¿Cómo se te ha ocurrido poner esa letra a una música éuzkara que ya ella sola nos destroza el alma?

Han pasado muchos años desde entonces y no puedo olvidarlo. Aquellos hombres flacos, rapados, harapientos, valientes, estaban como piedras, con ojos brillantes, duros, humedecidos, pensando cada uno en su tragedia y en "su casita todo amor"...

¡Perdóname, Señor...!

Hemen dago erderaz idatzitako aurkitu dudan bigarren abestia, gabon abestia da eta doinua oso ezaguna izan behar du hor esaten duenez, nik ez diot jarri baina zuk, irakurle, akaso jarriko diozu.







ESPETXETIK IRTEERA - 1943go urtarrillaren 13an

Burgosen lau urte eta erdi egin zituen, horietatik bat, heriotzaren errainua buru gainean zuela. 1940an etorri ziren errebisioak, eta kondena berriak: 30 urteko kondenak aurrena, indultua gero. 1943ko urtarrilaren 13an, honela kontatzen du "Mañul"ek bere Diarioan «Gudaris y rehenes de Franco»:

«Martes, 12 de enero.

Desde el toque de diana hemos sabido los nombres de nuestros amigos que se van a casa. Entre ellos hay 16 de la brigada, Pino, Perico Iruretagoyena, Ander Arcelus y Carmelo Lasarte. Han partido antes de comer. He escrito una carta a mi madre y otra a Joshe S. ¡Por fin han empezado las liberaciones! He recibido carta de Celia y he escrito una postal a Mariasun. Después de comer ha llegado otra lista con liberaciones de Bilbao. Entre ellas las de Angoiti y J. Frade. Los del Txir-Txir se han hecho una fotografía antes de la partida de algunos componentes- Estamos abrumados por las emociones del día; todos estamos callados y la brigada parece un cementerio. Anoche llegaron 287 masones. Pino ha salido en libertad desde la enfermería y Sebas también, con los ojos malos, frío.»

Koldo Mitxelenarekin batera kartzelatik atera, eta elkarrekin egin zuten trenez Donostiarainoko bidaia. Koldok urte asko geroago kontatu zuenez, «Andres Arzelus eta biok Gipuzkoako hiriburura heldu ginenean, ni neu *ovni* bat bezain arrotz sentitu nintzen. Orduan, maletak eskuetan, Abenidaraino heldu eta, bertatik, Luzearrek telefonoz Errenderira deitu zuen, ni tranbian helduko nintzela abisatzeko»...

[Aurkibidea](#)

1943/1946 DONOSTIA-MADRIL-DONOSTIA

Bere familiatik irten gabe, Dunixi eta Manuel anaiak lanik gabe utzi zituzten faxista espainiarrek Donostiako Udal Kutxan. Halere ustekabeko laguntzak eta lagunak aurkitu zituen Luzearrek. Era honetan, bere laguna eta garaje baten jabea zen Nemesio Lealek lanpostu bat eskaini zion Madrilen. Andresek eskaintza eskertu arren hasieran uko egin zion, ez baitzuen berriro Euskal Herritik urrundu nahi, are gutxiago giro itogarrian bizi zen gerraondoko Madrilen bizitzeko.³¹

Amalek honela kontatzen digu orduan bizitakoa:

Kalean zebillen batean, bere laguna zan Lealtar Nemesio –Leal Garajeko burua– arkitu zun. Onen emaztea "Obras y Construcciones Elizaran"eko jabearen sendikoa zan, eta auek lur-beso (peninsula) guztian zabaldurik zuten etxegintza, Etxe Nagusia Madriden kokaturik. "Te necesito en Madrid" esanez, zuzendaritza eskeñi zion.

–No te parece que ya he pasado suficiente tiempo fuera de Euzkadi? –Ez zegon prest gure aita, naiz eta irabazi onak eskeñi, Aberria berriro uzteko.

Gertakizun au izan eta illabete (gutxi gora-beera) igaro ondoren, erbesteratzeko agindua jaso zun; zeatz-meatz oroitzen ez banaiz ere, berreun ta berrogeitamarren bat kilometrora urrutiratzeko agindua.

Leal jaunak, gertatutakoa adierazteko ots-egin bezin laster, Madrideo lana berreskeñi zion.

Denbora txikia eman zun ba gure artean. Madrideo bidea artu eta an asi zan lanean.

Bakardadea jasan eziña zitzaion. Espetxean baño okerrago zegola esaten zun, an beintzat lagun artean zala ta...

Leal jauna, aita orrela ikusiz, etxe billa asi zan gu ara joan gintezen aal zan azkarrena. Orrela ba, [1943ko] garagarillaren 15ean, San Isidro egunean ain zuzen, sendi osoa Madridera joan giñan berarekin bizitzera.



Madrilgo kaletan sendiarekin bildu ondoren



Madrilen 1944ean, Luzear, bere emaztea Amalia, alaba Amale eta semea Iñakirekin.

An urte t'erdi inguru egin genitun, naiz ta zigorra iru edo lau illabetera kendu. Zigorrik ez, ezta Donostira itzultzeko lanik ere... Lana arkitu arte, an gelditu bear...

Alako batean, Donosti aldean, Ernanin ain zuzen ere, lan bat eskeñi zioten "Almidones Remy" olan, idazkola lanerako. Lanbide artan etzun ez Madriden zun malla, ezta irabazirik ere, baño zalantza txikirik egin gabe, aalik eta laxterren emen giñan, 1944ko iraillan.³²

³¹ XABIER ARZELUS DOMINGUEZ ek «BIDEGILEAK»en

³² Amalek bere aitari buruz egindako liburuxkan

Madrilen eman zuten denboran zer egin zuten jakiterik izan ez badugu ere, ez dugu ahantzi behar bere lagun zintzoenetako batzuk Carabanchelen preso zeudela, hauen artean Joseba Rezola³³, eta honela izanik seguru gara Luzearrek Madrileko bere egonaldia lan politikoa egiteko erabiliko zuela, ez baitzen lagunak eta militantzia «ahazten» dituzten horietako pertsona.³⁴


Naiz eta Luzear bera ez aipatu Kirmen Uribek honela kontatzen du garai artan nola biltzen ziren Madrilen zeuden abertzaleak, bere lagun Joseba Rezola haien arduraduna izanik ez dut zalantzari Luzear tartean izango zenik. Garbi dio Amalek etzekitela berak zertan aritzen zen aita baina bazekiten etzegoela geldirik. Hau da Kirmenek kontatzen diguna:³⁵

Flavio Ajuriagerra izan bazen Bilboko arduraduna Madrildo taldearen buru Joseba Rezola ordiziarra zen, gerra garaian Defentsako idazkari nagusia izandakoa Santoñako El Dueson eta beste zenbait espetxetan preso egon ondoren 1943an askatu zuten, baina herrian bizitzeko debekua ezarri ziotenez, Madriler a joana zen lanera Elizaran eraikuntza enpresara. Talde anitza zen hangoa, Junta de Resistencia zeritzon erakundea sortu baitzuten diktaduraren aurka zeuden alderdiek eta elkarlanean jarduten zuten; noiz edo noiz Chicote taberna ondoan zegoen putetxe batean biltzen ziren bilerak egiteko. Euskal abertzaleez gain, sozialistak, errepublikar ezkertiarak, anarkistak, katalanak eta galiziarak. Joseba Rezolaren agindupean ziren, besteak beste, Koldo Mitxelena, Sabin Barrena, Bernabe Orbeagoz edo Pello Mari Irujo. kontaktu onak zituzten Pardoko kiteko, Banco de Vizcayako zuzendari Bordegarairekin elkarrizketatzen ziren; ez ziren alferrik Espainiak

bankurik handienen artean Bilbokoak. Txomin Letamendiren egitekoetako bat, agidan, talde desberdin hauen arteko lotura indartzea eta bermatzea zen, koordinazio azkar eta ziurragoa lortzea penintsulan barrena zeuden taldeen artean. Ariztimuño batailoian Txomin Letamendirekin batera gerran ibilitako Sabin Barrenaren bitartez segituan jakin du, Joseba Rezola harrapatu egin dutela Madrilen, 1944ko abuztuan. Eta hala ere, bi asteren buruan libre utzi dute, frogarik ez dutelakoan. Oso kontuz ibili beharko!, aske uzteko modu hau polizia- ren ohiko amarrua da, susmagarriari jarraipena eginez ahalik eta kide gehien harrapatzeko. Eta noski, tentuz ibili dirá aurrerantzean. Baina bederatzi hilabete geroago, 1945eko maiatzean, Reina Victoria hiribidean, berriz atxilotu dute Joseba Rezola; Carabanchelen eduki dute egun batzuez, eta ekainaren 2an Irunera daramate trenez, gogor interrogatu dezaten han.

Jarraian kontatzen duena aurrerago sartuko dut, 1945ean Ander, jadanik Donostian zanean, han egindakoekin zer ikusirik duelako.

Berak erderaz idatzitako lantxo edo artikuluko gutxitako bat 1944ko maiatzak 5ean idatzia aurkitu dut: Madrildo «Delegación Nacional de Prensa»ra gutun bat "ostegun santuko prozesioari" buruz. Bertan argi ta garbi adierazten du bere "kristautasun sendoa".




[Aurkibidea](#)

³³ *Garai hartan Rezola etzegoen preso, Madrilen izan arren, 1945ean atxilotu zuten Madrilen, ordurako Luzear Doostian zegoen eta bertan lagundu zion Rezolari atxilotetatik ihesten. Hau aurrerago zehazten da. [Jonanek](#)

³⁴ XABIER ARZELUS DOMINGUEZ ek «BIDEGILEAK»en

³⁵ Kirmen Uribek "Elkarrekin esnatzeko ordua"n



1944ko iraillan DONOSTIAN berriro

Honela dio Amalek:

1944.ngo Iraillan etorri giñan Donostira, poz-pozik. Aita, esan dedanez, Ernanin así zan lanean. Lan ontatik kanpo bereala así zan gaztedia biltzen, Santa Maria elizako gazteekin hain zuen.

Emanin lanean ari zela, Donostiko Aurrezkitegiko Zuzendari zan Lamfus jaunak deitu zun. Len esan dedanez, ortxe, Donostiko Aurrizkikutxan jardun zan lanean 16 une zitunetik 1936gna arte. Lanfus jaunak deitu zun ba eta bertan lanean así bear zuela esan zion. Gure aitak par egin omen zun, ori ezinezkoa zela esanaz, baña Lamfus jaunak ba zun indarra, itxuraz, eta bertan lanera sartzea lortu zun. Benetan eskertzekoa izan zan gure aitaren alde egin zuna! Baña onegia zan luze irauteko!

GAZTEAK

Joan-itzuli hauetan ez zuen, jakina, Luzearek euskararen eta Euzkadiren aldeko bere lana baztertu. Kartzelatik irteterakoan Donostira itzuli zanean, bereala lan billa asi zan, baina baita "bere lanetan" ere. "Lan" hauetako bat, Santa Maria elizako gazteak bildu eta haieri barruan abertzaletasuna pizten saiatu izan zan.

"LAN" ARRISKUTSUAGOAK ERE...

Honen adibide, Madriletik Donostiara itzuli zenean bizi izan zuen balentria edo abentura dugu. Hernaniko bere lanean ari zela, Luzearek berehalako ohar bat hartu zuen: Madriletik zetorren trenean, Joseba Rezola bi goardia zibilek «zainduta» zekarten Irungo komisaldegian «egokiro» itaundua izateko. Antza, frankistak prest zeuden Rezola torturatu eta honek euskal erresistentziaz omen zekien guztia ateratzeko. Hernaniko geltokian trenera igo eta Rezolari ihes egiten laguntzeko agindua hartu zuen Luzearek. Baita honek agindua ondo bete ere.³⁶

Trena badator Donostiarantz, larunbata da. Hernaniko geltokian mozkor bat sartu da. Balantzaka zeharkatu du bagoia, tupust egin du batekin eta bestearekin. Joseba Rezolak ezagutu egin du adiskidea: Ander Arzelus Luzeaz kazetari eta idazlea da. Donostiako Norteko estaziora iritsi baino lehen Arzelus bertotan hasi da, bazterrak nazkatzen diharduen kantari hordi bat da, eta Rezolari adierazten ari zaio trena geratu baino lehen bagoitik salto egin behar dutela, biek batera, Erresistentziako kideak zain dauzkatela kanpoan, haiek eramango dituztela toki ezkutura.

Oso bizkor gertatu zen ihesa, ez dakit tirorik ere egin ote zuten guardia zibilek. Barriola sendiaren etxean gordeta egon zen Joseba Rezola, harik eta abuztuko bigarren asteazkenean automobil frantses ofizial bateko maletategian muga igaro zuen arte, Ziburura.³⁷

[Aurkibidea](#)

³⁶ XABIER ARZELUS DOMINGUEZ ek «BIDEGILEAK»en

³⁷ Kirmen Uribek "Elkarrekin esnatzeko ordua"n

Ekintza honek Luzearrantzat Iparralderantzako bidearen hasiera markatu zuen, ihesa gertatu zenetik Poliziak hertsuki begiratu baitzuen. Beraz, azkenik, ihes egin behar izan zuen, Donostiako Udal Kutxan lanean ari zela poliziak lantokian bertan bere bila zetozeला abisatu ziotenean.³⁸

Baina etzen hori izan behin betiko ihesaldia, Amalek honela kontatzen digu orduan gertatutakoa:

Au etsaiak nolabait jakin zuten eta egun batean, Kutxan lanean ari zala, bi gizon sartu eta gora, zuzendariarengana, igotzen ikusi zitun. Poliziak zirala ez zun zalantzik egin, onetarako oarmen edo zentzumen berezia dute-ta auekin arremana izan dutenak. Orduan, laneko lagun bateri gertatu zana esan, eta alde egin zun aiek goian ziran artean. Poliziak zuzendariarekin bera jetxi ziranean, aita an etzegola ta, ateraño irten ziran. Une artantxe bertan aitak bira egin aal izan zun izkiñan, eta ezkutatzea lortu, bere lankideak gerora kontatu zigun bezela. Ozta-ozta iges egin zun beraz.

Iru edo lau egunez ezkutatuta egon ondoren, Lamfus jauna Gobernadorearengana (edo alako batengana) joan, eta ea Anderren aurka zer zuten jakin nai izan zun. Ezer gutxirik izango zuten, bere burua aurkeztuz gero, pakean utziko zutela agindu baitzioten. Eta orrela izan zan.

Baina etzen luzerako izan, handik gutxira:

Gau batean, nere bizi osoan iñoiz aaztuko ez dedan gaua, bi polizi azaldu zitzaizkigun gure aitaren billa. Gure amak, aita etxean ez zala esan eta ikustera sartu nai zuten, baña "Fuero de los españoles" zala ta, "mandamiento judicial"ik gabe, etxe batean ezin zirala sartu eta etzirala sartuko esan zien.

–Pero, señora, si su marido no está en casa, déjenos entrar a comprobarlo.

Gure ama, berean gogor; ez zitula sartzen utziko, eta aserre bizian aginduaren billa joan ziran, kanpoko atean polizi bat eta kaleko sarreran beste bi utziz.

Minutu bat galtzerik ez zegoen, aitak oso argi baitzun ezin zutela arrapatu, geiegi zekila ta oso arriskutsua gertatuko zala. Nolabait iges egin bear zun, baña, nola? Gu irugarrenean bizi giñan, eta soka baten laguntzaz bigarren bizitzako balkoi batera jexten aalegindu zan, baña alperrik, ezin beko bi poliziak ikusi gabe egin. (...)

Gure sukaldeak barne-bide bat zun zuzenean, baña bereala biurguneak zitun bi aldetara, eskubitara joz komunera iritxi zintezken eta ezker aldera egiñez, kaleko atera. Biurgunea zan zatian sapairik ez genun, arritzekoa bada ere, eta onen ordeztellatua genun gañean, baita laugarren bizitzako bi leio ere. Bitxikeri onegatik, aal zan moduan aita laugarren bizitzako leio batera igotzen lagundu eta bizitza ortan sartuz, andik tellatura irixteko aalegindu bear zula pentsatu genun. Baña au guztia zaratarik gabe egin bear genun, bi arrazoigatik batez ere: bata, atean zegoen poliziak ez zun ezer entzun bear; bestea, laugarrenean bizi ziranak lagunak izan arren, auek esnatzea arriskutsua zan, soñurik entzuten bazuten, karrasirik edo egin zezaketen ta. Nola edo ala lortu zun goiko leio batera igo eta bizitzan sartzea, bi semeen laguntzari esker, eta an, argi-zulo batetik tellatura ateratzea, Anderrek (seme zaarrenak) lagunduta. Orduan onek esan zigunez, aita tellatuan ondo utzi zun eta berri onek pixka bat lasaitu gindun; etsaien atzaparretatik iges egin zun beintzat! Bereala oean sartu zan beste guztiak bezela.*

Andik pixka batera, antxe ziran berriro ere gure "lagunak", sartzeko baimena aldean zekartela. Ezin zuten sinistu aita an ez zegoenik, eta ikusketa artan etxe guztia arakatu zuten, oi azpi, arasen atzekaldeak, eta abar. Oso asarre ziran amarekin, ez zuten ulertzen ta, zergatik bialdu zituzten aginduaren billa, aita an ez bazan.

Kezkatuta euki gindun gau osoa, aita tellatuan bakarrik... gauez... nola egongo zan ez jakiteak!

Urrengo goizean, ondo zegoela esanez, mezu bat bialdu aal izan zigun.

Tellatuko ibillerak geroago, berekin itzegin aal izan genunean, jakin genitun. Etxeko ataria San Jeronimo karrikan izan arren, bizitzak Puerto karrikako izkiña ere artzen zun. Ortaz, aita tellatura irten ondoren, Puerto kale aldera joan, eta ango balkoi batean sartu eta antxe egin zun gau osoa. Etxe artakoak ezagunak ziran, eta auek Puerto kaletik ateratzen utzi zuten.³⁹

[Aurkibidea](#)

³⁸ XABIER ARZELUS DOMINGUEZ ek «BIDEGILEAK»en

³⁹ AMALEK«LUZEAR»liburuxkan

*Amalek "bitxikeria" dionaren arrazoia seguruen zera izan ditek, berak bizi ziren 3garren soairuko etxebizitza eta laugarrenekoa ere beren sendikoak zirela, bere aitonaren garaian 13 semealabako sendia etzan bitzta batean bizitzerik beraz bi bizitzak zituzten eta barrutik nolabait "elkartuta" egoteko egina zegoen "bitxikeria" hori alde hortan.

Une artako arazoa gairitu bazun ere, ez da bearrezkoa, andik aurrera ezkutuan ibilli bearke zuela esatea. Donostin eman zitun illabete batzuk, baña ortarako bizarra utzi zun. Eta orrela, iñork eza-gutzen ez zuela, ibillalditxoak ere egin zitun irian zear. Orrela ezin zula jarraitu, eta "beste aldera" joan bear izan zun, 1946an⁴⁰

Inazio Mujikak garai hartako berri honela ematen du:



Ander bere sendiko hiru emakumeekin ihesi ondoren

Ajuriagerra Donostian ezkutatuta zegoela, Valdestarren Villa Izarra etxean egoten zen. Iñaki Valdesek kontatu zizkion Pelay Orozcori Luzearren ihesaldiaren berri gehiago: "Cuando se escapó Ander Arcelus, estuvo varios días viviendo, podíamos decir, como un gato, en los tejados. Por las noches intentaba cobijarse en cualquier sitio que le ofreciera abrigo bajo techado. En una de estas ocasiones, parece que quiso entrar en algún piso que estaba abierto y desde dentro empezaron a gritar: "¡Ladrones, ladrones!", por lo que el bueno de Arcelus tuvo que salir de allí volando. Y así estuvo varios días, sin comer. Un buen día llego aquí, porque conocía el refugio de Juan [Ajuriaguerra]. Y te vas a asustar: aquel día se comió ¡catorce pasteles seguidos!". Pelay Orozco, Miguel; *Juan Ajuriaguerra, su vida, su obra, su muerte*, Idatz Ekintza, 1987. Amale Arzelusi esker dakigu, aita ezkutatuta zegoela ere, Aldakonea gaineko Usandizagatarren etxera joaten zela gazte talde bat prestatzen ari zen euskarazko antzerki lana zuzentzera.⁴¹

Xabier Arzelusek honela kontatzen du garaikoa:

Halere, Iparraldera pasa aurretik, zazpi edo zortzi hilabetez Gipuzkoan zehar ezkutuan lanean aritu zen, eta barne Erresistentziaren ardura esku onetan utzi ondoren hartu zuen mugaz bestaldera pasatzeko erabakia, noizbehinka muga «hegoalderantz» pasa bazuen ere. Donostiara etorri zen batean, hain gustokoa zuen zarzuela bat ere ikusi omen zuen *Victoria Eugenia* antzokian, ondo mozorrotuta, noski. Betaurreko ilunaz eta biboteaz disimulatuta, Luzearrek hain aldatzen zuen bere itxura non, behin batez, Luis bere anaiak ez zuen Andres Donostiako kaleetan ezagutu.⁴²

[Aurkibidea](#)

⁴⁰ AMALEK«LUZEAR»liburuxkan

⁴¹ Inazio Mujika Iraolak «Luzear» liburuan

⁴² XABIER ARZELUS DOMINGUEZ ek «BIDEGILEAK»en

1946/1949 IPARRALDEAN

Ipar Euskal Herrian, 1945. urtetik 1949an hil zen arte bizi izan zen Luzear. Ez zituen noski urte gogor haiek ezer egin gabe eman. Besteak beste *Alderdi* aldizkariko kontseiluan egon zen, eta *Euzko Deya* aldizkarirako ere hainbat artikulu idatzi omen zuen, izenik gabe.



Iparraldean erabili zuen Nortasun Agirietako bat da hau. "Carte d'identité d'étranger temporaire. Arcelus, Andrés. Profession: Sans. 10 decembre 1946. Delivrée 30 decembre 1946. Lieu de résidence et adresse au moment de la remise de la carte: Pau 4 rue des Anglais".

EBBko LEHENDAKARI ORDEA

Gipuzkoako arduradun nagusia izan bazan Donostian izan zen garaian, iparraldera iritxita, 1948an EBBko lehendakariorde izendatu zuten. Alderdiko txosten eta gutunetan "Anselmo" izena erabiltzen da hartaz hitz egitean (EBBko lehendakaria, Doroteo Ziaurriz, "Dionisio" zen): Ander, Andrés, Luzear, Imanol, Anselmo.⁴³

Atzerago, 28garren orrialdean esan bezela, bere azkenetako hitzaldia izan ditekenaren "zirriborroa" daukagu, EBBren billera batean hitzaldia ELEBITAN egin behar izan zuen, zoritxarrez, berak bertan zionez "DENAK" uler zezaten:

Bere"amesgaiztoa" zen gaiarekin, ALDERDIAREN EKITALDI-BILERATAN IKUSTEN ZUEN EUSKERA EZA! Etzuen amore emango hil arte bere borroka hortan eta "zirriborro" hauetan garbi irakurri diteke bere kezka. Bertan lehendabizi euskeraz eta gero zatika erderaz errepikatuaz egin zuen bere hitzaldia, **ALDERDIAN, DENAK ULER ZEZATEN!**

Honela dio lehenengo orrian:



Euskera

Gure ezaugaririk nabarmenena.
Gure izkiñurik bikañena.
Gure pitxirik maitagarriena.
E.B.B.'k euskera bere gainberako ---- gaian gelditu ta bera berpiztu, indartu ta sendotzeko eskatzen zaion guzia ontzat artu bear, danik eta esk---derik gogoñenak izanda ere.
Gure --takitan atzera gabiltza ordea. Bear bada euskeraren garrantzia ezaguturik ----- aberkide izateko euskera jakitea eskatu izan balitz, gaur ez genuke onelako lanik izango.
Onelako eskabidea gogoña zala pentsatuko dezute bear bada baña ez ote da ori bezin gogoña, gaur, gure alderdian zerbait izateko, naiz agintari, naiz enpliatu euskera jakiteko eskatzea.
Gauzi asiera ona ematen etzaionean ezta gero aiek mol-

datzea samuñagoa izaten.

Gure Alderdian sartzeko aurrez benetako abertzaletasun egiñ antzera euskera ikasteko eskatu izan bagenu, gaur ez genuke Alderdi...

Beste 7 orrik osatzen dute hitzaldia.

[Aurkibidea](#)

⁴³ Inazio Mujika Iraolak «Luzear» liburuan

RADIO EUZKADI IRRATIA

Francoren komunikabideen lanari aurre egiteko (eta euskaldunen izpirituak susper-tzeko –gerra galdu ondoren bazuten berpizteko premia!) EAJK nahitaezkoztat jo zuen irrati emisora aske bat lehenbailehen osatzea.

Lan honen antolatzaile nagusia Joseba Rezola izan zen, eta *Radio Euzkadi-Euzkadi Irratia* osatzea bere esku geratu zen, lan honetan Arzelus bere lagunaren laguntza osoa izan zuelarik.

Hemen, Donibane Lohitzunen bizi izan zen, Villa Briseis-en, EAJK alokaturiko etxean. Harekin batera bizi ziren irrati beste kideak ere: besteak beste, Leonardo Salazar eta Iñaki Durañona.

Luzear irrati zuzendaria ere izan zen garai batean eta euskarazko egitarauaren arduraduna denbora guztian.

EUSKERA IRAKASKETAK IRRATIAN BERRIRO:

HONELA ZION IRAGARKIAK:


«Radio Euzkadi, la emisora de la Resistencia vasca, ha comenzado a radiar clases de euzkera, en emisión diaria de un cuarto de hora, a las 7,45 de la mañana, en onda corta de 29'70 metros. Estas clases han obtenido una favorable acogida entre los radioyentes de la emisora clandestina vasca».

Aipatu bezala, euskal irakasketa haien arduradun nagusia Ander Arzelus izan zen, gerra aurretik 1934ean "Radio San Sebastian" en hasi zen bezala, hemen ere jarraitu zuen. Etzuen sekula amore eman berak hain beharra ikusten zuen euskeraren beharra zabaldu eta erakusteko ahal zuen era guztietara.

Luzear emisoraren zuzendari ere izan zen, epe labur batez.⁴⁴

Behin baino gehiagotan eten zuten Donostiako "Radio San Sebastián"eko emisioa Francoren kontrako aldarriak jotzeko. Bere kronikak Gorritar Imanol izenordez izenpetzen zituen.

Honela diote Leire Arrietak eta José Antonio Rodríguez ek:



Ander Arzelus Luzear, vicepresidente del Euzkadi Buru Batzar, director de la emisora durante algún tiempo y una verdadera autoridad en materia euskérica, se encargaba de elaborar la parte en euskera de los programas. Para sustituirle se las arreglaron en un principio con los trabajos de Nicolás Ormaetxea Orixe'o' y los del propio Rezola.

[Aurkibidea](#)

⁴⁴ XABIER ARZELUS DOMINGUEZ ek «BIDEGILEAK»en

1948an AMALAREN EZKONTZA

Bera erbestean zegola izan zuen harremana bere suia izango zen Andonirekin, bera ere erbestean zegoen gerra ondorenetik 1948arte. Baita bere aitarekin ere, Joseba Zinkunegi, sendagilea eta hau ere euskal idazlea, beren euskeraren aldeko burrukan eta EAJn ere buruetakoak biak zirenez, aspalditik elkar ezagunak eta adiskideak ziren.

Hemendik aurrera Amale berak ematen digu berri bere liburuxkan:

Nere senargaia, Zinkunegi'tar Andoni ere an (iparraldean) zan. Gerra garaian alde egiña, 16 urtekin, eta gero etorri ba'litz "soldaduzka" egin bearke zula ta, ("prófugo" bait zan), bate gogorik ez, ni ara joan ala ez zalantzan giñanean, "profugo" entzat barkamena iritxi zan, eta orduan berretorri zan onera, 1848'ngo. Garagarrilla'n. Urte artan bertan, Azilla'k 27'an, ezkondu giñan, eta aurrez aurre eskutitz bider berri au. Nai izan arren, etzun etortzerik izan. Alderdi'ko buruei baimena eskatu zien, baña au jaso etzula ta, ez genun gure ondoan izan egun garrantzitsu ortan. Tamalgarría izan zan, batez ere baimena berandu iritxi zitzaiola ikusi zunean!

Ez dira falta Anderek bere "sudurmotx"eri eta Andoniri idatzitako gutunak beren ezkontza dala ta. Baita Amalek 4 egun aurretik bere aitari idatzitakoa ere.




Amale eta Andoni 1948-XI-27an

[Aurkibidea](#)

LOURDESen 1948 - 1949

Iritxi zaigun postal baten bidez badakigu 1948an otsailean Lourdes en izan zela:



Eta badira argazki batzuek ere bera exerleku-gurpildun batekin agertzen dana, Amalia eta beste lagun batzuekin, baina ez dut uste bi gauzak garai berekoak izango direnik, leku askotan irakurri dudanez 1949gn

urterarte etzuen bere gaxotasunaren aztarnik izan, honela diote Leire Arrietak eta José Antonio Rodriguezek "Radio Euzkadiko historiaren" liburuan: *(Jatorrizkoa erderaz, Amalek itzulita bere liburuxkarako)*

Jorrailla'n gaxotu egin zan. Bere lagun eta sendagille Doroteo Ziaurritz, Gorostidi sendagilleak eta radio-sendagille batek begiztatu zuten eta ebakuntza eginbearra zala erabaki zuten, eta Paris'era eraman zuten ango sendagille on batengana.



Beraz argazkiak urtebete lehenagokoak izatea arraroa iruditzen zait, seguruena gaizki zegoenean joan zirela bertara pentsatzen dut, bere sinismena oso sendoa zen postalean irakurri ditekenez bezela. Dana dela, hor daude argazkiak, bere pentsaera zein indartsua zen ikusteko bat datoz.





Baina lehenagoko argazkiak ere baditugu bere beste egoera eta bizitzaren berri ematen digutenak, adibidez egoaldera ezin joanik, bertara inguratzen saiatzen ziran eta horrela ikusi ditzazkegu Larungo tontorrean egoalderuntz begira bera, Joseba Zinkunegi (bere



aitaginarrebakide izango zana beren alaba Amale eta semea Andoni 1948an ezkondu zirenetik) eta beste lagun batzuekin. .



Donibane Garazin bere emaztea eta beste batekin.

[Aurkibidea](#)

PARISEN EBAKUNTZA

Parisko ospitaletik ebakuntzaren aurreko egunean, seme alabei bidali zien azken gutuna, ez dut geroagoko besterik aurkitu, naiz eta urtero bere urtemugaren inguruan, hau da abuztuaren 15^a inguruan gutun bat bidali izan seme alabei, urte hontan etzen gai izan hortarako, 10bat egun beranduago zendu zen.



1949-V-11

Nere nereak:

Agindua betetzera nua. Idazki luzetxo bat agindu nizuten eta ona asi. Gaur bazkalondoan, ordubateterdietatik irurak arte izeba Paularekin ederki egon ondoren pxka batean oiean egon naiz, lauterdiak aldera jeiki eta gure salan buelta batzuek eman ditut eta ondoren gaur Pepita'k bialdu didan tarta puska eder bat janda zuei idazten asi naiz.

Paris'ko "Hospital" au oso ederra da, edozein klinikaren enbidirik ez duna. Nerea "Salle 1" da. Professeur d'Allaines'en Chirurgie'ko sala da. 23 oi daude ta 5 gañenean ementxe naukazute nere jaiotza beñiaren zai irikitzen.

Gaxozaiak oso neska atsegiñak dira eta txit ondo betetzen dute beren eginbeaña: alai ta jator. Ez egunez eta ez gabez ez gaituzte beñere bakañik uzten. Beti emen degu batedo bat inguruan Aingeru Zaindari antzera.

Sendagiñeak ere jatorak dira. Ni operatu bear nauna buru egiten duna da ta eztegu besteak aña ikusten. Oso oso ona omen da. Estomauak bakañik operatzen dituna dezute.

Goizean txoriak baño leno esnatzen gaituzte.¿Noiz esango zenuteke? ¡Bosteterditan alajaña! Espetxean zarpitan esnatzen gindutela ta marmarean aritzen nintzan ni. Ezer ez egiteko zergatik oñen goiz esnarazi. Baña emen ezin esan ezer egiten eztanik.

Bosteterditan ekartzen dute jeiki ezin derenentzat arpegia garbitzeko ura. Ni aurreneko egunean jeiki ezin nit-zan bezela garbitu ta bizaña kentzera. Baña bigañenerako ikasi nuen xixtema ordubetexo geiago oiean egoteko.

Bai ba. Seiterdietan asten dira oiak egiten. Eta ordu laurden batean gure ogeitairu oiak moldatu ondoren, asten da luñaren garbiketa. Luña garbitzen ari diran bitartean ez

dago oietik mugitzerik, baña oiak egin bitartean naiko denbora izaten det garbitu eta bi-
zaña kentzeko.

Gero asten dira sendagiñe eta gaixozaïen joan etoñiak, ari zula eta besteari labatiba,
ari pildorak eta oni pixapotoa. Amaika lan egiten dute.

Amabiak aldera bazkaria. Nerea auxe izaten da: letxua ensalada, patata pure pate-
rkada aragi xeña eder batekin eta postrea. Gustora jaten det. gañera beti izaten det na-
ranja bat edo beste baz-kari-luzagañi.

Ordubateterditan bixita. Ordubetekoa. Ostegun ta igandetan ordu terdi.

Añatsaldean dale bola beñiz ere, zula ta zirika ta bultza ta artu ta eramán ta ekañi.
Seiterdiak aldera aparía. Bazkariaren antzekoa baña xeña gabe, ez enpatxatzeko.

Ta gero, ezer ez. Uñengo egunerako prestaketa egin, nork baraurik egon bear dun
esanaz, ta kitto.

Bederatzitan argiak itzali ta lo.

Neri gaurdaño egin dizkidaten gauzak:

Astelenean, ezer ez.

Asteartean, odola atera beatz mutuñetik eta aztertu.

Asteazkenean, odola atera besotik, eta añatsaldean beña sartu, trasfusioa 300 cm³.

Ostegunean, deklarazioa artu eta gaitzaren beñi zeatz jakin, eta azido bat eta lau pil-
dora (bitaminak omen dira) añarazi.

Ostiralean, azidoa ta pildorakin segi, ta bigañen odol sartzea.

Larunbatean, azidoa ta pildorak.

Gaur, azidoa ta pildorak.

Biar, goizetik barau egiteko esan didate, ba diotenez "la numeration" egin bear
omen didate. ¿"La numeration" zer dan? Ba eztakit, baña nik uste det operazioa egiteko
ondo nagon izango dala. Ta ondo banago, ostegunean (nere iritzia da ¿e?) etzango naiz la-
sai-lasai sabel-irekiketarako maiean.

Lasai-lasai esan det eta egi-egia da. Ortarako primeran prestatuta etoñi bainaiz.

Donibanetik etoñi baño len, an bertako apaiz euskaldun jator batekin egin nun nere
bizitza osoko aitorketa. Len Dueso'ko espetxean bezela, "Argi Donearen" azterketa luzea-
rekin patxara patxaran egin nun nere bizitza azter-keta. Au egindakoa itzegin nun apa-
zarekin eta ordua eskatu nion aitorpenean egiteko. Uñengo egunean goizeko zortzitan sakris-
tira juateko esan zidan. Eta antxe zegon zintzo asko nere zai esandako orduan. Egun ar-
tan apaiz asko zebñela sakristian, bai, ta eñetorearen etxean obeto egingo genuela esan, ta
an eramán nindun aren etxera.

Beñogitabost minutu, iru ordulaurden egin nitun nere bizitzako mintza apaiz jauna-
ren aũrean agertzen. Eta Jaunak ondo entzun zun itxaropen osoa daukat. ¡Lasaitasun
aundiagorik nai dezute, nere txikiak, sendagiñearen labanpean jartzeko?

Uste det operazio bezperako ñunabañean, nere lagun ona dan apaiz jator batek Jau-
na ekartzeko modua egingo digula. ¡Patxaran etzango eznaiz ba!

Zuek au artzerako izango dezute, noski, uñutizkiñez deia operazioa noiz izango dan
adierzteko. Goiz artan (operazioak zortziterdiak aldera asten dira) entzun guziok meza ta
jaunartu, guzia ondo irten dedin. Ta ondo irtengo da. Ta laster beñiro elkar ikusi ta bes-

arkatuko degu len baño ere maitasun aundigoz.

Maiteak, badakizute lo artzerakoan nortzun irudia izango dedan oroimenean, maite zaituedan guziona ta guzion eñi kuiunarena.

Agur, maite-maiteak, laster arte.

V-16= Oraintxe esan didate biyar operatuko nautela. Uste baño lenago beraz. Obe.

Ez dakit zergatik baina ebakuntza etzioten hor dion egunean egin, hurrengo gutunaren arabera ilen 20an izan zen ebakuntzaren eguna.

Hurrengo gutuna Amalia, bere emaztearena da, ebakuntzaren hurrengo egunekoa, hau erderaz da noski, esan bezala etzuen euskera menperatu ahal izan bere bizi guztian naiz eta horretan beti saiatu, honela dio:



París 21-V-49

Queridos todos puesto que para todos va a ser:

Hoy sábado, día siguiente de la operación acabo de venir del hospital. He estado con el aiatxo desde las nueve de la mañana hasta las diez y media. Como quiera que no tenemos permiso especial y nos lo estamos tomando nosotros ha querido que me marchase, para volver a la una y media, hora de la visita corriente.

Ayer mientras la operción estuve en la capilla del Hospital y Agustín se quedó esperando la terminasen.

La carta va ir como salga porque comprenderéis mi estado de ánimo. Le llevaron a operar hacia las ocho y media, ya desde las ocho estábamos con él, Agustín y yo, le acompañamos en la camilla que le llevaban hasta donde nos permitieron, iba como es él entero y tan tranquilo como quien va a dar un paseo.

Nos quedamos espiondo cuando llegaba el señor d'Allaines y nuestra desilusión fue grande cuando le vimos venir hacia las diez menos cuarto, pues pensamos que todo aquel tiempo era perdido pero la enfermera de este doctor nos aclaró diciendonos que ya estaba todo preparado para el trabajo del Sr. d'Allaines, ya que la disección y demás corre a cargo de otros médicos.

[Aurkibidea](#)

La operación operación, es decir la intervención de este gran profesor duró unos 35 minutos. Es con él con quien habló Agustín en cuanto salió de la operación y de él el que supimos que al hacerla se encontró con cosa mucho más grave que lo que las radiografías acusaban, pero que ya le había hecho lo que tenía que hacerse y que todo el tiempo el corazón había respondido admirablemente.

Al poco rato volvió normalmente en sí, sonriendo pero con tal naturalidad que Agustín y yo no comprendíamos si nos sonreía tan francamente a nosotros o estaba todavía bajo los efectos de la anestesia.

Pero no, era que nos veía y empezó a decirnos que estaba oso ederki y preguntarnos qué hora era y si estaba en uno de los cuartitos de una cama que están al lado de la sala de general donde antes estaba, y que se ve las destinan a los operados de importancia. Os daréis cuenta de nuestra poxa al verle y oírle tan natural.

Yo me quedé hasta las cuatro y media de la tarde porque a esta hora nos indicaron a Pepita y a mí, que nunca es costumbre que la familia esté el primer día de la operación.

Cuando nos fuimos le dieron cincoampollas terribles de suero, las recibió admirablemente costando el terminarlas cuatro horas.

El cuarto donde está tiene una de las paredes que da al pasillo por donde andan las enfermeras casi toda de cristal y es por ahí donde se veía la vigilaban continuamente. Creo sea imposible ni mejor ni más atendidos. El quirófano de este Hospital de Broussais debe ser el mejor montado de Europa. En este aspecto tenemos que estar contentos por lo admirablemente que está atendido.

No sé si os decía que hoy le he encontrado muy bien, ha dormido toda la noche.

Ayer hacia las tres le tomaron la pulsación. Tenía 76 y 37'2 de temperatura. Hoy tenía 37'7 y le han dicho que es completamente normal.

No os extrañará que ayer no escribiese. Cuando volví del Hospital tuve que acostarme pues el saber que era más grave que lo que esperaba os figuraréis la impresión que me causaría. Tengo que repetir que nunca agradeceré bastante a esta familia el cariño que nos demuestran. Ayer sufrió Agustín mucho, pues se ve que quiere a Ander de verdad.

La víspera de la operación, durante la visita a pesar de la hora tan mala como es, de una y media a dos y media, vinieron Agustín, el Lendakari, Irujo y Lasarte, estuvieron y gran rato y se le veía al Aitatxo satisfecho. Todos los de la camas de alrededor miraban un poco asombrados al oír hablar nuestro idioma.

No puedo seguir porque tengo que comer y volver al hospital y no quiero que hoy no os vayan noticias que tanto esperaréis.

Ayer recibimos las cartas de Amale, izeba bitorene, Itziar y Ander y del otro hijo mío, no respira? Hoy la de Carmen. A todos muchas cosas, no sabéis todos la falta que me hacéis. Tú Bitorene creo que me sustituyes muy bien al lado de esa hija con la que en estos momentos quisiera estar. Ezkeñikasko. A Carmen que he leído con gusto su carta. Esta es también para ella y que perdone que no le mande una especial pues en ella no iba a hablar más que de las mismas cosas.

A todos hermanos y hermanas mi recuerdo.



Ohartxo bat, Amaliak, gutun hontan, «Amale» bezela sinatzen du.



Ander eta Amalia 1946an



Emaztea eta seme alabak 1947an Donostian



Emaztea eta aitaginarreba 1947 AE

AZKEN GARAIA

Geroago, ebakuntzaren ondoren, azken bolaran Beiriz-eko Ville Antoinetten bizi izan zen zendu arte.

Hauek dira bere azkeneko argazkiak, 51 urte bete zituen egunean, zendu baina 12 egun aurretik, lehenengoan bere emaztea eta alaba Amale, berak ezagutuko etzuen lehenengo biloba sabelean zeramala, zendu eta hamaika egu-



nera jaio zen. Bigarreanean Amale Andoni bere senarra, Amalia, eta Rezolaren andrea eta alabarekin, (argazki hau Rezolañateratakoa izango da bera falta denez), hirugarrenean Rezolarekin ere eta laugarrenean bikotea, Ander eta Amalia.

1949ko abuztuaren 27an zendu zen. Bere emaztea eta bi semeak, Ander eta Iñaki eta alaba Itziar berarekin zituela, Amale izan ezik bera haurdun zegonez ezin izan zuen mendiz besteak bezela muga gainditu eta...

Baina hau Amalek berak kontatzen digu. Pixka bat atzerago joango gera berak kontatzen duena guztiz interesgarria dala pentsatzen dudalako:

AZKENEKO ILLABETEA.

Bakarrik, etxekorik gabe gaizki zegon, baña gaxorik izanda askoz okerrago; orduan amak aitaren lagunekin itzegin, eta berarengana joateko asmoa artu zun. Ixilpean, ezkutuan joan bear izan zun, jakiña, ez bai zioten baimenik eman. Onela ba, mendiz, aal zan moduan muga igaro eta Donibane'ra iritxi zan. Aitarenen azkeneko lau illabeteak elkarrekin egon ziran.

Alderdia'k izkutu-bidalgoa (correo) zun antolalua, eta onen bidez izaten genun aitaren eskutizak jasotzeko aukera, onela bere berri maiz jasoz.

Uztailla'n, Itziar (nere aizpa) eta ni joan giñan berarengana. Gure bidea itsasoz izan zan. Ondarrabi'n, bertako itsasontzi batean irten giñan eta itsas zabalean Donibane'ko Itsasontzi batean sartu eta bertan iritxi aitarengana.

An, astebete egin genun. Oso egun onak izan ziran baña aldi berean itunak, aita luzarorako ez genula bagenekin ta. Ebakuntza egin (Jorrailla aldean) eta etorri zanean baño okerrago arkitzen zun bere burua. Gau batean, bizi zan lekutik gertu xamar jaialdi bat zala ta, ara joan giñan lauak. Bidean bein baño geiagotan geldi-aldiak egiñaz joan giñan. Antxe mai baten inguruan exerita giñala, ebakuntza egin ondoren Donibane'ra iritxi, eta geltokian bere zai zeuden guziak bere arintasuna ikusiz, arrituta gelditu zirala kon-

tatu zigun. Une artan zegon bezela ikusiko zutela espero bait zuten, nunbait.

Orrela ba, astea igaro eta itzuli egin giñan. Endaia'n txalupa batean sartu eta Ondarribi'n berealaxe giñan.

Dagonilla'n 15'ean, 51 urte bete zitun. Andoni (nene senarrak) eta ník, "pasaporte" ba-genun eta orrekin 48 ordurako baimena edo "Pasea" errez ematen zuela esan ziguten. Orreri esker aitaren urtemuga bera- rekin igaro aal izan genun, 15 eta 16'rako eman bait ziguten baimena.

Illaren 23'an oso gaizki jarri zan eta orduan nere anai-arrebak bere ondoan izateko modua arkitu zuten. Ni, ia aurra izatekoa nintzan -Iraila'ren 7'an jaio zan- eta mendiz joan bear zanez, ezin izan nun joan.

Nekez ibilli ziran, txakurrak ere atzetik zeuzkatela... Itziar, arramazkez beteta iritxi omen zan. Azkeneko bi edo iru egunetan, ni ez beste guztiak aitarekin egon ziran. 1949'ngo. **Dagonilla'ren 27'an il zan.**

BEIRIZetik DONOSTIRA

Muñoa'tarrak Donibane'n bizi ziran. Sendi au Donosti'n oso ezaguna zan. Aberatsak ziran, baña aberaz- tasunak etzitun itxutu, eta gerra aurretik Euzkera'ren alde lan asko egin zuten. Muñoa'tar Miguel jaunak jarri zun Donosti'n leenengo Ikastola, 1920 urtearen inguruan.

Laguntza bear zuenaren ondoan ziran beti. Gure aitona monaren etxe aurrean bizi ziran; betiko ezagunak genitun, beraz. Aita il zanean, Donosti'ra ekarri bear zala bururatu zitzaien. Oso gauza zalla zan eta ez ge- nun uste iritxiko zutenik. Alde batetik, onera ekartzeko baimena ematea ia eziña zala zirudin; bestetik, or- tarako bear zan dirurik ez genun. Leenengo lortu bear zana, ekartzeko baimena zan. Ontarako Ma- drid'eko norbaitengana jo zuten eta baimena lortu. Diru arazoa ere bere gain artu zuten eta orrela, aita Donosti'ra ekarri aal izan genun.

Aitarekin gure ama eta aizpa etorri ziran; gure bi anaiak joan bezela, mendiz etorri bear izan zuten.

AZKENEOA AGURRA DONOSTI'N.

Ekarri zuten ba Donosti'ko illerrira. Baña illotz ere ez ziran istilluak bukatu. Biaramonean amar edo amar t'erdietan illobiratzeko gelditu giñan, baña bertara iritxitakoan, lurperatua zegon. "Polizia" goizeko zazpi- retan azaldu eta indarrean eorzte beartu zutela esan zigun bertako apaizak. Sinistezina da illa egonda ere pakean ez uztea, bañan illobiratzea zala-ta, giza-talde aundia bildu eta agerkundea (manifestación) eratuko zanen beldur ziran.

Ez zan onekin bukatu "festa". Illeta-elizkizuna ere, ezin izan genun nai bezela egin. Santa Maria elizan, goizeko amaiketan genun ordua, baña bezperan, gauez, "erretoreak" deitu zigun goizeko zortzi t'erdietara aurreratzeko agindua jaso zula Gobernu'tik, esateko. Au zearo beldurtuta ageri zan eta bat-batean onartu egin bear izan genun. Baña ez giñan lasai gelditu, egunkarietan 11:30'tan izango zala esaten bait zun. Orduan, Donosti'ko Irrati'ra deitu eta illetaren ordua aldatu egin zala adierazteko, eskatu genien. Irratiko zuzendaria Molina jauna zan. Leen aitatu det gerra aurretik gure aitak euzkal irratsaioak antola- tzen zitula; au zala ta Molina jaunarekin arremana izan eta onek begi onez ikusta zun. Irrati'ra deitu ta, ematen ari zirana bukatu bezin laster, albistea zabaldu zuten. Gerora jakin genun, Molina'k 1.000 peze- tako izuna ordaindu bear izan zula, garai artako diru asko izanik.

Orrela ba, goizeko zortzi t'erditan izan zan elizkizuna, eta irratian esker jende ugari bildu zan. Baña ba'ge- nekin askok ez zutela jakingo ordua aldatu zanik, eta Amarako Karmel'darraia ea amabitan meza eman ze- zaketen galdetu genien eta auek baietza eman ziguten. Orduan, Ander eta Iñaki, gure anaiak eta Andoni, nere senarra, amaika t'erdietan Santa María eliz-atarian jarri eta illetara zetozenei gertatutakoa adierazi, eta Amara'ra bialdu zltuzten. Oartu zeraten bezela, jende asko bildu ez zedin, illeta-elizkizuna aurreratu arazi zigutenei, oso gaizki atera zitzaien beraien joko; batean izan bearrean, bitan ospatu bait zan. Ga- ñera gizalerro luzea ere jasan bear izan zuten: oitura zan bezela, etxe atarian izenpetzeko orriekin maia jarri zan, eta antxe egin zan aitaturako gizalerroa.

AZKEN-ITZA.

Emen bukatuko det gure aitaren bizitza-edestia, baña ez da amaitu berak utzitako eredu, ez orixe!

Berak eta bera bezelako gizakiak ez ditugu iñoiz aaztu bear eta beraien bidea jarraitzeko aalegiña egin bear degu.

Asieran esan bezela, aitaren nortasuna, gizatasuna, ontasuna... ezin izan ditut, saiatu arren, nai aiña adierazi. Ala ere, nere lantxo onen bidez, bera nolakoa zan ezagutarazi ba-dizuet, nere asmoa burututzat joko det.






Donosti 1998.

[Aurkibidea](#)

"LUZEAR" OROIMENEAN

Ez nuke esango Ander historian merezi duen lekuan dagonik, berak "Euzkera" eta "Abefia"ren alde egindako lan guztiak ez dute merezi duten adinako aitormenik izan. Alde batetik kontuan izan behar da hain gaztetan hil izana, 51 urte bakarrik zituela, ordurarte egindako lan asko jendaurrekoak izan baziran beste asko "ixilpekoak" ere izan zirenez etziren hain ezagunak.

Geroztik ez da asko hitzegin beretzaz, nik lan hauek aurkitu eta erabili ditut liburutxo hau egiteko, lehenengo gure ama eta bere alaba **AMALEK** idatzitako liburuxka «Luzear» izenburuarekin eta bere beste lantxo batzuek izan ditut gidari nagusienak. Gero Anderen hiloba **Xabier Arzelus Domingezen** liburua ere oso garrantzizkoa izan dut eta, nola ez, **Inazio Mujika Iraolaren** liburua ere.






Iturri hoietaz gain Interneten bidez aurkitu ahal izan ditut berak idatzitako lanak «El Día» egunkarian eta «Argia» ere.


Baita ere Martín Ugalden "Historia de Euskadi" estatutuaren negoziaketaren berri ere aurkitu dut, eta Leyre Arrietak "La Historia de radio Euskadi" eta Sabino Arana Kultur Elkarteak "EAJ eta Euskera" liburuek diotena kontuan izan dut.

Iturri hoietatik eta Amalek gordetako jatorrizko paperetatik, gehienak digitalizatuta ditut gaur egun, jaso dut gure aitoren bizitzari hemen idatzitakoa eta berak idatzitakoen zerrenda bat ere osatu dut, naiz eta oraindik zerbait gelditu ikertzeko edota garbian jartzeko.

Beste datu batzuek aurkitu ditut berarekin espetxean egondako bi presoren idazlanetan ere, bat MAÑULEk bere "Diarios" etatik eta bestea GALARZaren "Fé y esperanza" liburuan. hoietan Ander aitatzten dute behin baño gehiagotan.



Azkeneraino etzituen bere lanak alboan utzi... Hemen, ilabete batzuek beranduago bere suai izango



Iparralden azken garaian lanean...

zen Andonik, oraindik bera ere erbestean zenean egindako argazkian, bere lanetan Baionan.

[Aurkibidea](#)



Arzelus'tar Ander
"LUZEAR" i
omenaldia

OROITZAPENEZKO

EKITALDIAK



Arzulek 21, 12. urte
Auzoale kaleko
KULTURAREN ARLOAN
DENEK

antolatzailea:
EUSKERAZAINTZA
Euskeraren

laguntzailea:

erri akademia

BILBON, SAN ANTON ORFEOIAK OMENALDIA

Luzearen espetxekide eta bere «kilkir abestia» operaren musikaegilea izan zena, Burgosko espetxean izan ziren garaian, Franciso Bengoak, San Antoneko orfeoiko zuzendaria zela, 1950eko amarkadan, musikaldiak antolatzen zituen, zenbait pertsonaien omenez, niri iritxi zaidanez, "LAUAXETA", euskal idazle eta olerkaria guda hasi eta bereala frankistek erahil zutena, "KOLDO ROBLES" euskal dantzaria eta iparraldean dantza talde ugari eratu izan zituena, "Akelarre" dantza ikuskizunaren egilea besteak beste, 1951n hila, eta "LUZEAR" 1949 hila ere besteak beste.

Hemen dagoen liburuxkan, omenaldian abestutako abestien partituraren gain, bertan agertzen da azalaren barrualdean, espetxeko orfeoia zuzendutako idatzi zuen abesti baten letra. Badakigu gehiago ere idatzi zituena, ez dakigu zenbat baina 56gn orrialdean sartu dut beste bat "Galarza", hauen presokidea izandakoaren "Fé y esperanza" liburutik jasota.



DEIA

ELIJA CATALAN OI, ASTURIKIDIA

CENTENARIO DE EAJ-PNV



*Una generación
irrepetible.*

*fotografiada en la
cárcel de Burgos.
Sentados, de izda. a
dcha., Joseba
Rezola, Juan
Ajuriaguerra y
Ander Arzelus. De
pie: Luki Artetxe e
Ignacio Linzeta.*

UN SIGLO DE HISTORIA



Luzear berreskuratuz

'EGUARRI ABESTIA' BERRARGITARATUA. Ander Arzelus 'Luzear'-ek Charles Dickensen 'A Christmas Carol' eleberrari egindako izalpen-molaketan berreskuratu du Inazio Mujika izanlek, eta EIZIEK argitaratuko du

Kontratuak berri berri, DNIak, jantzeriak... Ezen jantzeriak ez dira bakarrik, baizik eta...
Ander Arzelus 'Luzear'-ek Charles Dickensen 'A Christmas Carol' eleberrari egindako izalpen-molaketan berreskuratu du Inazio Mujika izanlek, eta EIZIEK argitaratuko du.



AMALIA ARZETA enbustarria, ager. 41 Ander Arzelus Luzear. Argier Espirituak argitaratuko du argazkia.

LEHEN ARGITALPENA

'Ei Dia' egunkarian eman zuten argitaratu Luzearrek 'Eguarri Abestia', atalaka, 1931n

Bi urteko du urteko lehen argitalpena. 'Ei Dia' egunkarian eman zuten argitaratu Luzearrek 'Eguarri Abestia', atalaka, 1931n.

Euskaltzale baten ekinbide etenik gabea

Ander Arzelus Tipografiaren...
Euskaltzale baten ekinbide etenik gabea.

1931n...
Ei Dia egunkarian eman zuten argitaratu Luzearrek 'Eguarri Abestia', atalaka, 1931n.

1949an...
Ei Dia egunkarian eman zuten argitaratu Luzearrek 'Eguarri Abestia', atalaka, 1931n.

ZINEMA

Katalanez azpidatzitako filmen emanaldiak bultzatzeko ekimena sortu dute

Katalanez azpidatzitako filmen emanaldiak bultzatzeko ekimena sortu dute...
Katalanez azpidatzitako filmen emanaldiak bultzatzeko ekimena sortu dute.

Gomendioak...
Katalanez azpidatzitako filmen emanaldiak bultzatzeko ekimena sortu dute.

BILBAO ORKESTRA SINFONIKOA

Denboraldia 2003/2004 Temporalde

Hazteko Kontzertua
Concerto de Apertura
Gustav Mahler - Sinfonia 2.ª en Do menor (1894-1902)
Jorge Mena, saxoa

Dimitris Dalkas, soprano
Eduardo Fernández, tenorea
Orkestra Sinfonikoa de Bilbao

BILBAO **EL COMERCIO** **WELLS**

Koldo Mitxelenak sarri aldarrikatutako 'Eguarri abestia' itzulpena, berriz kalean

► Ander Arzelus 'Luzear' donostiarrak 'El Día' egunkarian publikatu zuen atalka 1931. urtean

FELIX IBARGUTXI. DV. DONOSTIA

Euskal Itzultzaile, Zuzentzaile eta Interpreteen Elkarteak (EIZIE) *Itzultzaile aitzindariak* liburu sail bati eman dio hasiera eta kalean da lehenengo alea: Charles Dickens-en *Eguarri abestia* eleberri laburra, Ander Arzelus *Luzear*-ek euskaratua 1931n.

Liburu gisa baino, bestelako moduetan plazaratutako itzulpenak berreskuratzeko jaio da liburu bilduma hau. Eta hasiera eman dion itzulpen lan hau atalka argiratu zen Donostiako *El Día* egunkariko euskarazko orriari 1931. urtean bi hilabetetan zehar.

Inazio Mujika Iraola idazle eta editorea arduratu da lana prestatzeaz. Oso gauza gutxi aldatu du Mujika Iraolak, eta Donostiako Udal Liburutegiko mikrofilmeen fotokopiez baliatu da. Lexiko alde-tik, zenbait hitz badira gaur egun erabiltzen ez direnak, eta irakurlearen lana errazteko orrialde pare bateko hiztegia eskaini du

liburuaren bukaera aldera.

Inazio Mujika Iraolaren hitzurre luzeak balio du, bestalde, euskal letretan oihartzun handirik izan ez zuen Luzear bezalako idazle-ekintzaile baten benetako garrantziaz jabetzeko.

1930ean jaiotako *El Día* egunkariko *Euskal Orria*-ren ardura-duna izan zen Luzear (1898-1949). Euskadiko gudarosteak gerra galdu zuenean, kartzelan sartu zuten. Han, euskara irakasten jardun zuen, eta gainera irakasbide bat taxutu zuen. Dickens-en beste ipuin bat oinarri hartuta, antzerki lan bat prestatu zuen, *Kilkir abestia*, eta beste preso batek, Bengoak, musika erantsi. Koldo Mitxelenarekin batera atera zen Burgozko kartzelatik 1943an eta hizkuntzalari handiak sarri aipatu zuen bere idatzi eta elkarrizketetan Luzearren itzulpen hau.

«Goxotasuna eta egokitasuna ezin ukatu zaio *Eguarri abestia*-ri. Ez naiz harritzen Mitxelenaren oroitzapenean harri xuri batez



Ander Arzelus 'Luzear'.

markatuta geratu izana hura irakurri zuen eguna», dio Mujikak.

EAJren erresistentziako mugimenduan ari zenez, polizia segika zuela Luzearrek ihes egin behar izan zuen Donostiatik Iparraldera. Han Rezolarekin batera, Euzkadi Irratia sortu zuen, eta later hil, 51 urte zituela.



Liburuaren aurkezpena Donastiko udaletxean. Anderen lau seme-alaba, Inazio Mujika idazlea eta zinegotziarekin.

[Aurkibidea](#)

EHUN URTE - OMENALDIA 1998



Anderen jaiotzetik ehungarren urtehurtebetetzean, "Euskaltzaindiak" antolatuta eta "Sabino Arana Kultur Elkargoa"ren laguntzarekin, Donostiko Kutxaren aretoan egin zitzaion omenalditxo bat.

Mahaian (argazkian ezker eskuin) Antton Aurre (FSAko zuzendaria) Koruko Aizarna (Aldundiko kultura arduraduna) Amale Arzelus (Luzearen alaba eta euskaltzaina), Mari Karmen Garmendia (Kultura Kontseilaria), Olazar'tar Martin (Euskerazaintzako lehendakaria).

Lehenengo Martinek hitzegin zuen, "bizitza osoa aberriaren alde lanean eman eban gizon baten omenaldian gagoz. zenbat neke, espetxe..." esanaz hasi




zen, ondoren Antton Aurrek Luzearen bizitzako zehastasunak eman zituen. Amalek argazki erakusketa bidez gehiago zehaztu zuen bere aitaren bizimodua. Ondoren Mari Karmenek eta Korukok ere eman zituzten bere ikuspuntuak "Luzeare"i buruz.

Ondoren Amarako sagardotegi batean bazkari batekin giro ederrean ospatu genuen, ohi dan bezela abestuz bukatu genuen ospakizuna.



Itziar (alaba) Faustina (suia) Mirentxu (arrebalekamea) ...



Amale, Eujeni bere laguna eta Agurtzane, bere koñataren artean

ANDER ARZELUZ, OMENDUA



Debatu n, illero egiten doguzan EUSKERAZAIN-TZA ERRI-AKADEMIA'ren batzarretan, batzarkide bat Amale Arzeluz izaten dogu. Andra langille ta goragarri au "Luzear" izena artu eban Ander Arzeluz'en alabea da. Eta aurtan Ander onen jaiotzarik eungarren urtea dan ezkeru, omenaldi bat egitea erabagi gendun. "Luzear" izan zan lakoa izan zalako, Sabino Arana Fundazioagaz berba egitea erabagi eban Amale'k eta orrelantxe egin be egin eban. Alde bietatik gauzak gertatu eta omenaldi ori Donostia'n egin zan aurtengo urtillaren 24'an Gipuzkoa'ko Kutxaren aretoan. Lenengo geure ille-roko batzarra egin genduan eta gero omenaldia.

Omenaldirako pozez artu genduan geure artean Mari Karmen Garmendia eta bardin Fundazioaren zuzendari dan Anton Aurre Adiskidea eta Gipuzkoa'ko Foru-aldundian Kulturako arduradun dan Koruko Aizarna.

Lenengo idazki nu izenpetzen dauan eta Euskerazaintzaren zuzendari danak egin eban aurkezpen labur bat eta gitxi gorabera auxe esan eban: Bizitza

osoa aterriaren alde linean emon eban gizon baten omenaldian gagoz. Zenbat neke, espote, jazarpen, guda ta bake ikusi ta bizi izan dauzan! Zenbat lan idazten, itzaldietan, izparringietan eta jakintza-arlo askotan! Olako gizonak egiten dabe gure erria eta erriaren edestia! Baiña sarritan aiziuta eukiteb doguz! Orixe jazo ez daiten egiten dogu gaurko omenaldi au, erriak gure edestira sartu daitezcan. Goratu daiguzan gizon eta andere antzagarriak! Ospatu daigun egun onetan Luzear aintzagarria!

Jarraian Anton Aurre'k egin eban berba, astitsu ta egokiro eta Luzear'en bizitzako zeatzasunak argi ta garbi agertu ebazan, gero esango dogun lez.

Urrengo Amale bera izan zan izlari eta argibidezko argazki edo diapositibak aurrean dirala, polito erakutsi euskuzan bere aituren bizitzako jakingarriak.

Eta amaitzeko Mari Karmen Garmendia kulturako Kontzeillariaren itzaldi labur eta egokia.

Urrengo egunetan izparringietan ospakizun onen barria zeatz agertu zan, argazki ta guzti. Emen agertzen doguz argazki batzuk.

Ona emen orain DEIA egunkariak agertutako barri batzuk:

Luzear'eri zor jako entzun-ikus bidez euskerea irakasteko lenengo irakatsbidea eta sortu-barria zan euskal-irratian, euskera zabal-zabal erabiltea.

Eriotzara epaitua izan zan bere sasoiari erria ta izkuntza maite ebuzalako. Burgos'en izan zan ori eta antxe igaro ebazan espetxean bost urte. 1943'n aske unen-arte.

Berak idaztirako beste lau askoren artean "Neskamearen marmarrak" eta "Euzkadi a'ur" dira gogoangarrienak.

Mugaz bestaldera joan bear izan eban eta iparraldean ezazu eban EAJ eta EBB'aren leindakari-orde izatera eldu zan.

Ber-ogeiko urte inguruan, Rezola'gaz batera, "Euzkadi Irratia" sortzen laguntzaille izan zan eta Baiona'n il jakun 51 urtekoa zata, 1949n, urtean.

Barri guzti onek zabaltzeko Amale alabeak liburuskak bat zabaldu eban, beronek idarzia, an ziranen artean. Ori agertzen zana agertu eban irzaldian. Luzear'en illobeak gertatutako biideo baten bidez. An izan ziran Jon eta Lartaun Zinkunegi egilleak.

Amaitzeko, gogoratu daiguzan azkenean Mari Karmen Garmendia'k esandako berbak: "Gure aurretik izan do'uzan #izon eta emakume zintzoen jarraitzaille jatorrak izan gaitezuan, Gure indarrak alkartzea lortzen ba'dogu, Euskalerrak eta euskiterak Europa barruan zor jaken tokia izango dabe eta orrellan etorkizuna eskuratuko dogu, otoimena alboratu barik.

Azkenean AGUR JAUNAK abestu genduan go'oz eta biotzez.

Omenaldia amaitzeko, Donostia'n dan saganlote-gi ospetsu batera urretan gitan eta bazkal-ostean erriko abestirik ederrenak abestu genduzan.

OLAZAR'tar Martin

Zubikarai'tar Augustin

Gomutak

Saturratan'go Seminarioan ulkar ikasi genduan 1926'garren urteko Urria, latina ikasteko bigarren urtean. Berak amabi urte eta nik amaiu.

Apatz izateko amon agertu nuenen, neure gurasoek Lekeitio'ra ezaman ninduen Don Juan Eguskiza'rekin lenengo ikastaroa egiteko. Zergatik Lekeitio'ra eta ez Saturratan'era? Ba, neure amama, antaren aldetik, Lekeitio'n bizi zalako.

Bigarren latin-ikastaroan, Gabonetan, gaixorik gertatu nintzan eta bi urte galdu nituen. Bigarrenez, Saturratan'era. An ezagutu nuen Ondarra'ko mutiko alai eta lagun atsegin bat ikasketak, berdinak. Neri aurretik gertatutako gertatu jakon herri bigarren urtean. Alde egin zigun gaixorik. Galdu genduan ikastegian zintzo bat.

Urteak pasa ziran eta, 1936'garrenean, guda negargarri hat sartu zuen anai artean. Lazkao'n bizi nintzan Naparroa'tik gertu eta, ar'antzaleen antzera, bota zituzten beure sireak Gipuzkoa osoan. Aldamenetara igez egin genduenok: sareetan preso. Aurrera jo zutenak, Hika'taño ez ziran gailitu. Naparroa'tik agertutako gudarosteak be, Ondarra'ni atxelen artu eban.

Bakoiza beure lurraldean ibilli arretik, geuk izaten genduen Bizka'ko berri jakin genduan euskarazko egunkari bat atratzen chola, Augustin eta Jose Mari Arizmendi (Gasteiz'ko Seminarioan Kardabemaz lanetan alkaterekin ibilliak) urtean zirela. Geroa jakin, nuen Augustin truke hanean sartu ebela... Andik aurrera, ezer he ez.

Eldu gitan 1950'garren urtean eta Diba'ra elatzi ninduen txanburu. Arrezhero asi gitan ber'itu alkat ikasten eta bere lanen berri jakiten. Bagan artu-eman estuak geronkoak izan diru: 1970'an, Kardabemaz Bizkuva ber-itzean, an agertu zan Augustin, lanetan laguntzen; Kardabemaz'tik Euskerazaintza sortzean, bidez he: illero alkatzen gitan batzarretarako. Bera dogu Leindakari ordezko be.


Azkeneko batzartean nuriengo Irailaren 26'an azaldu zan bezi bezin zintzo, Andik sortu egunera eman zion gaitzak... Zentzar lan bidez osoan Euskeraren alde. Otaintxe bertan, 84 urte bizkarrean ditula, aldizkari auel zuzentzen ziran: Ondarra, Arranondo eta Euskerazaintza... Bilerarik ez du etorn gabe atziko, gaixorik ez ba'dago. Betiko lagun zart gogoangaria.

Diba'tik, Azillak 16, Urte 1998.
ARRINDA'tar ANES

BIZKAITARRAI BIZKAIERAZ

AZPEITIN ANTZERKI TOPAKETAK 1998an








EUSKADIKO XVI. EUSKAL ANTZERKI TOPAKETAK
1998ko Udazkena
AZPEITIA

Ander Arzelus
Antonio M^a Labayen

OMENALDIA

LIBURUAREN BANAKETA eta ANTZERKI EMANALDIA

- Lekua: ENPARAN ETXEA
- Eguna: ABENDUAK 3, Osteguna
- Ordua: ARRATSALDEKO 7etan

1998an abenduaren 3an, Azpeitiko Udalak anto-latutako EUSKADIKO XVI. EUSKAL ANTZERKI TOPAKETAK "98ko belaunaldiko bi idazle hauri eskeñi zien omenaldia, Ander Arzelus eta Antonio M^a Labayeneri.

Bi antzezlan egitekoak izan ziran, bakoitzaren lanekin, Labayen en «Petrikillo» eta Anderen «Neskamearen marmarrak». Lehenengoa antzestu zen baina bigarrena ezin izan genuen ikusi, antzezlaria gaixotu zenez.

Omenaldian beren sendiko asko izan ginen bertan eta bere seme albek jaso zuten bere izenean egindako oroigarria.

osteguna 19:00etan, Enparan Dorretxean **OMENALDIA**

Ander Arzelus (1898-1949)



Donostian jaio zen 1898an. Lehen ikasketak amaitsu eta goi mailako ikasketak jarraitu nahiz izan zituen baina lanerako bidea hartu behar izan zuen Dohostiako Aurrezki Kutxan.

Anderrek bere lanen zati handi bat "El Día" egunkarian eskematu zuen, egunkari honek zuen euskerazko atal txoan. Argia aldirikarlan era lanak argitaratu zituen eta Argiako zuzendaria eta baita zuzendariborde postua ere bete zituen zenbait garatan.

Donostiako "Radio San Sebastián"ko asteazkenoroko irrati saioan ere parte hartu ohi zuen.

1936an guda hasi zen eta Ander Arzelus Eusko Alderdi Jeltzale Un Batzarrekoa zerjez Heriotzarainoko gurutz bide neketsu bat hasi zuen. 1946an beste aldera ihesi joan beharra izan zuen.

Arzelusen antzerki lanen artean garrantzitsuak: *Gibelaundi*, *Neskamearen marmarrak*, *Kikir abestia*, *Dirugosea*, eta abar.

Aberrietasun grinak bultzaturik eta euskarari zion maitasunak eraginda euskerazko alor gehienak ikutu zituen, antzedia ere tartean zegoelarik. Arzelusen lan guztiak oihartzu handi bati dute: euskararen erabilera.

Abenduak 3 osteguna



LABUR-BILDUMA

Hitz batez definitu behar bagenu Luzear eta bere bizitza osoko lana, baina batez ere, Errepublikara garaian aurrera atera zuena, "euskaltzalea" izango litzateke hitz hori. Lan idatzia da batez ere bere arloa, hor aritu zen beteen, baina horretaz gain, bazuen beste alderdi bat, bultzatzaile eta antolatzailearena. Esan dugu jendea idaztera jarri zuela, *Argiako* idazle-agenda ia osorik hustu zuen *El Día*, eta emakumeak jarri zituen idazten; bere eskutik eduki zuten plaza irekia Elbira Zipitriak eta Tene Mujikak, esaterako.

"Beti entzun oi degu, 'Euskal Orria'k motelak, gatzik gabeak, irakurtzeko gogorik ematen ez dutenak izaten dirala. 'Erritako berriak, erri-tarrentzat ainbestean ¿baña gañontzekoai zer dijuakigu ba?' entzungo zaito bein eta berriz. Gai politik ez omen darabilgu euskal idazleak. Arrazoi dutela esango al degu? Alabaña bete-betean oker daudenik ezin esan dezakegu ordea. Ala ere, ikusi bezate euskal idazle arinok nola jaio eta indartu geran: nai bada umekeriak idatziaz. Zokoratu ditzazute umekeriok, zokoratu erri izperrak, zokoratu erdipurdi idatzita datorren idazkia, euskal idazle izan zitezken idazkigille oiek guziak ere beren lanakin batera zokoratu ta baztertu dituzute, ta nortzun irakurgaiak argitaratuko ditugu 'Euskal Orri'etan? Salaberriarenak? Unamunorenak? Barojarenak? Euskal idazle jator askoak baditugula? Bai orixe. Baña... erderaz idatzitakoak 'biotzian poza eman oi digun otsa darion txintxin'a ematen ordea, ta euskerazkoak, oraingo, 'txintxin otsik gabeko poza' oxta-oxta. Onegatik, idazle txukun, alai, goxo, irakurgarriak sortu naiaz, emakumezkoak begiz jo ditut. Gaurkoz 'txintxin ots' gabe errexago dantzatuko ote diran derizkiot, arreba maitiok euskera alde gogor jardun naiean nabaitzen baiditut. Badira oen artean ere idazle egiñak, eta ez gutxi errex egingo diranak. Aiek mugatu, ta oek bultzaka bada ere ateratzea, nere gain artu nai dedala jakitea, ez deritzait beraz irakurleari ez dijuakion arazoa. Guzien gogoa ez al da ba, alik laxterren, 'Euskal Orria' edozein erdel orri bezin irakurgarria arkitzea?'"⁴⁵

Nekez aurkituko da ekintza euskaltzale bat garai hartan Luzear bertan egon gabe, edo are, haren parte-hartze zuzenik gabe. Donostian eta Gipuzkoan behintzat, ez. Orobat, Donostiako euskaltzaleatasunaren bultzatzaile handiak laguntzaile ederra izan zuen, eta ezin hemen aipatu gabe utzi. Bata bestearen laguntzaile baino, elkarren laguntzaile izan zirela esan daiteke: Joseba Zubimendi eta Ander Arzelus. Bi izen horiek, neurri handi batean, elkarrekin doaz itxaropen bideko urte horietan. Zubimendik sortu zuen, 1931n, eta berak kudeatu zuen 1936a arte, *El Pueblo Vasco* Rafael Picavea "Alcibar"en egunkariko euskal orria (asterokoa) "Euskal Eresi ta Izkuntzaren Alde" izenburua zuena. Beraz Luzear *El Día* eguneroko atalarekin eta Zubimendi *El Pueblo Vascon*, astero, euskal erreferentzia nagusi bihurtu ziren Gipuzkoan. Maiz samar argitaratu zuten, gainera, artikulurik bion izenpearekin.⁴⁶

EZTABAIDAK

Eztabaidak gogoko zituen Luzearrek, eta bero dihardu eztabaidan. Karliten *La Constancia* eta ezkertiarren *La Voz de Guipúzcoa* egunkarietan argitara-tzen ziren iritzi emaleen kontra ari zen sarri askotan. Baina baita *El Día* bertan edo *Euzkadi* egunkari abert-zaleetan agertutako iritzi batzuen kontra ere. Lauaxetarekin badu ezta-baida sutu pare bat, "Gurbindo"rekin beste bat, eta beste hainbatekin ere bai. Nor zen orduantxe sortzen ari den Euskal Idazleen Batzan sartzeko gai? Batzuek zioten, Lauaxeta tarteko, abertzaleak bakarrik sar zitezkeela delako elkarte horretan; Luzearrek, Lizardi dakar gogora kontrako iritziaren alde egiteko:

"Aberri errota ibiltzeko, abertzale guzian kemenak bat egiñik ere ez ditugu naikoa. Abertzaletasuna, gurea dana maitasunez zaitzea izanik, euskera, aberri ezaugarri bizi ta nabarmenena maite duanak, aberria neurri txikian bederik maite du. Ta aberri maitasun apur oiekin, aritxo bat emendik, beste bat andik, errekatxoa osatu; errekatxo onen ura beste arenarekin bat egiñik, ibaitxoa; ibai bat, bi, iru ibairen indarra batu ta gure indarrari erantsita, guzien errota ibilaraztea ez ote genuke errezagoa?". Luzearren eztabaidarik gogokoena, sutuena, euskara jakintza bidean eragozpen ikusten zutenen aurkakoa da: "Ez da munduan jakintza bide izateko gai ez dan izkerarik. Gor-mutuai ere erakutsi bear zaiena, beren izkera (?) bereziz egin bear ko zaie, Fray Luis de Leon-en Odarik ederrenak belarri ertzer esatea alperrikakoa litzaken ezker. Danik eta izkuntzik atzeratuanagatik ere ezin esan leike, beraz, jakintza gaitan eragozpen danik. Gañontzean españeragatik ere berdin esan genezake, doixtar eta parantzetarrek beren izkeratan idatzi oi dituen idatzi sakonak, españera utsa dakitenentzat, Castelaren itzaldirik apañena gor-mutuientzat bezin lokotx uts lirakelako. Euskera, berez, beste edozein izkuntz bezin aberatsa izanik, ez bedi beñere esan jakintza bidean eragozpen danik. Geron buruen gain bota dezagun erru guzia, esan dezagun argi ez degula euskera jakintza-izkera izatea nai, gerok maite ez degulako besterik ez".⁴⁷

[Aurkibidea](#)

⁴⁵ «Luzear»ek

⁴⁶ XABIER ARZELUS DOMINGUEZ ek «BIDEGILEAK»en

⁴⁷ Inazio Mujika Iraolak «Luzear» liburuan

BERE IDATZIEN ETA BESTE ERATAKO LANEN ZERRENDA

ANTZERKIAK

GIBELAUNDI (lehenengo antzerki lana 1929an)
KIRTENEN GAUZAK (antzerkia)
BERNAIÑOREN LAÑIYAK (antzerkia)
EXKONBEÑI AMESLARI (antzerkia)
NESKAMEAREN MARMARRAK (bakarrizketa)
GARO USAINA (Bilbon irratirako prestatutako elkarrizketa bat, Amale eta Itziarek antzestuak)
DIRU GOSEA (Antzerkia-Espetxean egiña)
GONAGOŘITXO (umeen antzerkia-Espetxean egiña)
MAÑAKATXAÑA (umeen antzerkia-Espetxean egiña)
KILKIR ABESTIA (opera-Espetxean egiña)
EZIÑ-ERAMANA (zirriborroa)
ABEÑIA ETA MUTIKOA (zirriborroa)
EZETZ (bakarrizketa-zirriborroa)

ITZULPENAK

EGUAŘI ABESTIA (Dickens en Canción de Navidad itzulita)
EUSKAL EDESTIA (Estornés Lasaren HISTORIA VASCA itzulita)
EGIAZKO JAINKOA (Colección Salesiana de lecturas dramáticasetik euskeratua) Iru ekitaldiko antzerkia.
I TA NI IRU (Jardiel Poncelaren TU Y YO SOMOS TRES, itzuli eta egokituta)
IBARROLA (HilURREKO egunetan, Emmanuel Roblès-en Montserrat izeneko antzerki lana euskaratzen ari zen Luzear frantsesetik, eta bere suhiaren aita Joseba Zinkunegik eman zion bukaera 1956an.)

HITZALDIAK

Naiz eta hitzaldi asko eman bere bizitzan zehar edozein eratako ekitaldietan, hiru hauen berri daukat oraingoz.

1930-Urrian, Lezon Jon Garbizu "Zubigar" Lezotar olerkariari buruzkoa da. (K.M.nan dago)
1947 EBB- **Euskeraren egoera Alderdian**. Elebitan egindako hitzaldia
Cuanto más vascos más españoles. Hitzaldi baterako zirriborroa, ez dakit sekula erabili zuen ala ez.

PRENTSAN

GIPUZKOAÑA (Eguren aldizkarian bere lehenengo idazlanak)
ARGIAN (Argiaren zuzendari izatera ere iritsi zen, Bitor Garitaonandia hil zenean (1929), baina denbora gutxiko, Hain zuzen ere, beste proiektu handi batean sartu baitzen buru-belarri.)
EL DÍAN (Euskal orriaren arduraduna eta idazlea 1930etik 1936ra.)
EGUNAN (Gerra garaian Bilbon argitaratutako lehenengo euskal egunkaria sorreran ere haritu zen.)
EL PUEBLO VASON (Bada artikulu bat Luzearrena, 1931ko irailean, urte haietako euskaltzaletasunaren egitekoa laburtzen duena. Izenburu adierazgarriagorik nekez aurkitu: "Irudipen zoroak"...)

BESTELAKO LANAK

TXISTU-POXPOLIN (Umeentzat komikiak euskeraz, hauek eratzten eta zabaltze lanetan haritu zen)
DONOSTIA IRRATIA (Euskal orduaren entolatzaler eta hizlaria)
BILBO IRRATIA (Donostian bezala gerra garaian euskal irratsaioak prestatzen lagundu zuen)
EUZKADI IRRATIA (Lehenengo Irratiaren prestatzaileetako izan zen eta Zuzendaria ere garai batean)
BERTSOLARITZA (Euskeraren inguruko antolaketa guztietan hartzen zuen parte)
EUSKERAZALEAK (Euskal idazleen batzarraren alde ere egin zuen lana hemendik)
EUSKERA IRAKASTEKO METODOAK (Euskera erakusteko bizpahiru metodo prestatu zituen, zuzenean, irrati bidez, kartzelan... edonon ematekoak)
EUSKAL GOBERNUAREN BULETINA (gerra garaian Bilbon berak euskeratzen zuen)

ABESTIAK

Naiz eta hau ez izan bere lan garrantzitsuenetakoa, baditugu espetxeko garaian berak egindako abesti batzuen berri, geroztik etzuen gehiago egin arlo honetan nire ustez.

ESPETXERATUEN ERESERKIAK, (2) Dueson, 1937ko Urrilean
ERRAZKIN ETA MARTIARENAREKIN 4 ABESTI. Burgosko espetxean, E. Errazkinen musika, F. Martiarenaren armonizazioa, eta Luzearren letrarekin: **Maitetxo, Nere emazteari, Ene Aberria!, eta Maitasuna**.
BURGOSKO PENALEKO ORFEOIAK ABESTEKO. Erderaz idatzi zituen abesti batzuek penaleko orfeoarentzat.

[Aurkibidea](#)

AMALIA OROIMENEAN

Naiz eta atzerago beretzaz tarteka zerbait esana izan, (11gn. orrialdean adibidez), ezin dut bukatu liburutxo hau bertan adierazitako "Luzear"en ekintzetan berak izandako garrantzia gogoratu gabe.

Ez dago dudarik bere laguntza gabe ezin izango zituela bakarrik egin egindako lan guztiak eta sendia zaindu, bere lehenengo ardura hori zenez, bere emaztea gabe ezinezkoa izango zitzaion.



Amalia erdian, magisteritzako ikaskidearekin 1916an



Naiz eta bera "maistra" izan, eta horretan jardun izan zen ezkondu aurretik, euskera ezin izan zuen menperatu bere bizi guztian, baina ala ere, beti arduratu zen "bere etxean" euskera izatea erabiltzen zen hizkera, batez ere umeen artean eta horrela bere lau seme-alabentzat bere izkuntza euskera izan zen bizi guztian, adibidez bere bi alabak, Amale eta Itziar euskal irakasleak "andereñoak" izan ziren beren jardura guztian, frankismo garaian ixilpeko ikastolekin hasi eta jubilatu hartean.

[Aurkibidea](#)



Badakigu politika aldetik bere senarraren arikoa zela, naiz eta berak ez militatu alderdian, garai batean "Emakume abertzale" taldean sartzekoa zen baina etzen sartu haiek "erderaz" etzezaten egin bere erruz. Badakigu Anderrek irratian, poxpoliñetan etab. egiten zituen lanetan bere laguntza ere izaten zuela.

Eta zer esan guda garaian eta ondoren jasan behar izan zituenak, Donostiatik Zarautzera, handik Lekeitio eta Bilbora eta azkenik, itsasontziz Iparraldera 4 seme-alabekin Ander bere "lanetan" eta gero espetxean jarraitzen zuen bitartean. Alaba zaharrenak, Amalek, 13 urte zituen eta txikiak, Iñakik 5...



Amalia, Amaletxo eta bere ahizpa Carmen 1924an



Amalia eta lau seme-alabak Kanbon 1938an



Munduarteko bigarren gerra hasia zen 1939an eta alemandarrak Frantzia sartuak zirenez, etxera itzultzea erabaki zuten eta 1940 berriro Donostian ziren, oraingoan aita gabe, Amalek 16 urte zituela lanean hasi behar izan zuen sendian dirurik sartzeko beharrezkoa zenez. Amaliarentzat garai gogorak haiek ere Ander Burgosko penalean jarraitu bai zuen 1943 urterarte.

Orduan bere nekeak bukatuko zirela pentsatu balu ere, etzen denbora luzerako izan, aurre esan bezela Ander "desterratua" izan zen espetxetik irten eta ilabete gutxira eta Madrilera abiatu behar izan zuen, eta ama berriro bakarrik lau umeekin... Etzen denbora asko pasa eta Anderek Madrilera joatea eskatu zion eta bertara joan ziren Amalia, Amale eta Iñaki.

[Aurkibidea](#)



Madrilen egin zuten urteterdi inguru eta 1944 erdialdera "zigorra kenduta" berriro Donostian ziren. Oraingoan luzerako izango zela pentsatu bazuen ere etzen egia izango.



Anderrek lehen esan bezela, bere «lanetan» jarraitzen zuen eta 1946 iheslari bihurtu behar izan zuen eta iparraldera ihesi. Berriro bakarrik 4 seme-alabekin.



Isilpean bibotea utzita



1946an Donibanen



1946an Aberri Egunean Donibanen

Hau dena gutxi ba zen, ba dakizue hemendik aurrera gertatutakoa ere, Ander 1949an, 51 urtekin, hil zen.

Oraingoan betirako bakarrik gelditu zen seme-alabekin eta sendia nagusitzen hasia zen, Amale ezkondu zen eta lehenengo biloba, Ander, ekarri zion egun batzuetara, gero beste bat, eta beste bat, eta Itziar ezkondu zen eta gero Ander eta Iñaki ere eta beste biloba piloa ekarri zizkioten, 24 biloba eta 5 birbiloba ere ezagutu zituen...

[Aurkibidea](#)

Baina esan beharra da ARZELUStarren sendi osoa beti izan zuela bere inguruan, orduan eta bizi guztian.



Arzelustarren bazkaria 1977an Arantzazun

Gutziz bidailaria zen eta ahal zuenean etzuen ezetzik ematen bidaiatzeari, hemen ikusi dezakegu bere alaba Amalerekin, ITURENen bere amaren jaioterrian, bere amona Erasundarra zen:



Sendiko ospakizun guztietan izaten zen, gabonetan, eta biloben ospakizunetan, lehenengo jaunartzetan eta gero ezkontzetan etab.



1957an Jon Andoniren jaunartzean Joseba Zinkunegirekin



1958an bere lehenengo 10 bilobekin

[Aurkibidea](#)



1955go gabanak



1958go gabanak



Bere 80 garren urtemuga ospatzen



Miren Maite eta Karlosen ezkontzan



Bere azken urteetan etzen faltatzen biloben ezkontzetan ere. Argazkiaetan 80gn urtemuga ospatzen bere seme alabekin eta beren bikotekin (Iñakiren emazte Miren Maite falta da argazkian, ez dakit zer gaitik) eta bestean Sabin eta Miren lehenengo aldean, Anderen anaia eta arreba bat. Etzen etxean egoteko jaioa eta azkenerarte bidaiatzen jarraitu zuen ahalik eta gehienetan, Nafarroa oso gogokoa zuen hortarako ere.

Esan beharra dut nik ikusi ta bisitakoa bere inguruan, ez nuen sekula asarrean ikusi, beti maitale, beti irripartsu. Eta ahal zuena "euskeraz" ume guztiakin naiz eta berak ez menperatu...

1900go urtarrilaren 26 ean jaio zen eta 1983go apirilak 6an utzi ginduen 83 urtekin, bere bizi guztia sendi osoari eman ondoren.

Eskerrik asko amona!

Honeraino Anderen bizitzaz nere lanaren amaiera (oraingoz behintzat), liburu hontan saiatu naiz bildu ditudan lan gehienak aipatzen, naiz eta ezin izan ditudan sartu osorik bertan.

Jonan Zinkunegi Arzelusek

Oharra: Ordenagailurako 16 Gbeko bertsioan, agiri eta idatzi guztiak IZANGO dira, haiek irikitzeko lokarriekin.